

# uztarria

*Azpeitiko herri aldizkaria*

## HORIXE KILOMETROAK!

Diego Garciak eta Andoni Egañak  
lasterka apustua dute Km'00-ren alde

Euskara

losu Goenaga  
Iturri Zahar iker-  
keta bekaz min-  
tzo

100 urte

Antonia  
Nazabalek  
ehun urte  
beteko ditu



elkarriketa

Oskar Agirre:  
«Gustoa natxiok,  
baño loturie  
dek fuola»

COOP

Legarda



Arana 7 • 20730 Azpeitia  
Tel.: 943 81 23 09 Fax: 943.15.73.78  
E-mail: coop@legarda.com  
http://www.legarda.com



SUKALDEAK · BAINUAK



BERLONI - ren Banatzaile Ofiziala



MAPFRE

ZATOK ETA AHAZTU ARAZOAK

tel: 15 70 60

LOIOLABIDE, 11 AZPEITIA

CLUB MAPFRE



DOAN

SAR ZAITEZ ETA IRABAZI



«Euskalkiek euskara batua ikasi duten moduan, euskara batuak euskalkiak ikasi beharko ditu» (Joseba Sarrionandia)

## ale honetan...

**4-5-6:** Joxe Luix Aizpuru, Xabier Alday eta Uztaro Hautzaindegia-  
ren iritziak, Sale-  
giren marrazkia...

**7:** Beste behin Ibai Eder erre dute eta arrain asko hil da. Jexux Zelaia biolo-  
goaren iritzia.

**8-9:** Udala. Antzerki amateu-  
rrari laguntzak, eta udako haur eta gazteentzako programak.

**14-15:** Onintza Seguro-  
la herriki-  
dea, Euskadi Irratian egural-  
diaren berriemai-  
le.



**16-17:** Litera-  
tura. **Aimaren jantzia**, Fernando Morillo-  
ren ipuina.

**18-19-20-21:** Erreportaia. KM'00: Diego Garciaren eta Andoni Egañaren lasterka apustua.



**22-23:** **Elkarrizketa.** **Iosu Goenaga azpeitiarra Iturri Zahar** bezak mintzo.

**28-29:** Antonia Nazabalek 100 urte beteko ditu hilaren 7an. «Oso gustora» bizi dela dio.



**34:** **Elkarrizketa.** Oskar Agirre: «Etxekuekin bakarrik ez zio-  
k salbaziyue lortzeik»

## AKUILUA

### Azpeitia salgai




**Fernando Morillo**  
Idazlea

**B**alkoi batetik zegoen zintzilikaturik. Ez ginen hasieran konturatu, kartelak ez baitzuen gure arretarik erakarri. Arrunta zirudien —arrunta bezain sinplea—. Batere xarmarik gabea. Hainbeste kartel dago gainera! Berehala ohartu zen norbait, ordea. Ez. Hura ez zen, inola ere, ohiko iragarki bat. «Ikusten?», oihukatu zuen hura seinalatuz. «Zer ikusi, baina?», erantzun genion, ez baikenuen ezer berezirik antzematen. «Irakurri, irakurri!».

*Azpeitia salgai*, zioen erro-  
luak. Besterik ez. Eta jarraian, telefono zenbakia zekarren. Joño, joño, Azpeitia salgai! Txantxetan hartu nahi izan genuen. Azpeitiarrok ere salmentaren barne egongo ote ginen? Izan zitekeen, bagenekien, baten batek kartela moldatzeko orduan egindako hanka sartzea. Hala ere... Barre egin bai, noski. Baina zenbakia hartu genuen badaezpada. Eta egia balitz...?

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

# KAITO TELEBISTA



☎ 81 53 35

**Argitaratzailea:** Uztarría Kultur Koordinadora  
**Egoitza:** Julian Elorza 4, 2. ezkerria;  
Telefona: 150358 (berria da)  
**Posta kutxa:** 227, Azpeitia  
**Publizitatea:** Tel: 150358-852859  
**Posta elektronikoa:**  
uztarría@topagunea.com (berria da)  
**Inprimategia:** Zubi Grafikak  
**Tirada:** 1.500 ale  
**Lege gordailua:** AS / 6 / 08255 / 1999

UZTARRIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizuna



## Eliza eta marketina



Joxe Luix Aizpuru

**I**rudiaren gizartean gaudela esan ohi dute jakitunek; irudi batek mila hitz baino gehiago balio duela eta irudiaren indarraren ondoan alferrikakoa dela hitzaren trinkotasuna. Ikusi besterik ez dago komunikabideetan elizak ematen duen irudia, edo komunikabideok elizari ematen dioguna: Aita Santuaren aldia aldiko zentzugabekeriak, Aste Santuko ikuskizun turistikoak, edo zenbait arazo sozialen aurrean hartzen duen jarrera. Ez da erraza komunikabi-

deetan horrelako irudia islatzen duen instituzio batean sinistea. Marketinaren zurrumbiloan bizi gara, baina ez dut uste *gure* eliza gehiegi konturatu denik oraindik.

Elizaren ingurumarian noizbait mugitu izan garenok beti esan izan dugu badela *beste* eliza bat; komunikabideetan agertzen ez dena: lan ixila, konstantea, eskerrik gabekoa eta ikusgarritasun gutxikoa egiten duena. Eliza horren berri eman behar da.

Gogoan dut Patxi eta Kepa apaizak Azpeitira

etorri zirenean, Sanjuandegira esan behar-ko nuke hobe, non eta nola hasi ziren mezak ematen. Kaleko arropa arruntekin, kañerietako zaratak entzuten ziren areto txiki batean. Baina esperientzia hark ez zuen asko iraun: lokala txiki geratu zen eta edadeko jendearentzat oso *gogorra* zen hura! *Betiko* eliza-tenplo hotz eta arruntera pasa ginen. Mamia bera izango da, batean eta bestean, baina azala ere zaindu behar da elizaren irudia onbideratu nahi bada, behintzat.

## Gutunak

### Aurrekontuak eta ideologia

UZTARRIAKO maiatzeko alean udal aurrekontuen gaian agertutako iritzi batez hitz egin nahi dut. EH-k egin proposamenaren aurrean, EAko zinegotziek erantzun dute "EHren proposamen asko zeharo ideologizatuak" daudela. Bejondeizuela! Udal aurrekontuak egiteko ardura hauteskunde batzuen ondorioz 'adjudikatzen' da. Eta hauteskunde guztietan, nik dakidala behintzat, jendeak bere ideologiaren araberako botoa ematen du. Azpeitiko EH-k iahiru milaboto jaso baditu, jende kopuru hori aurrera-koia eta ezkerzalea dela suposa dezakegu. Herritar guztien interesak bai, baina beraiengan konfidantza jarri dutenen interesak ba-

bestuko dituen aurrekontu batzuek aurkeztea ere guztiz logikoa iruditzen zait. Edota EAk eta EAJK onartutako aurrekontuak ez daude ideologizatuak? Ez al dute euren politika ideologia zehatz baten arabera egiten? Honekin ez dut esan nahi herritar guztien interesak babestu behar ez direnik. Baina erabaki batzuen atzean beti ideologia egongo da. Ez ditzagun gauzak nahastu.

**Mikel Arregi**

### Oñeder SA Basarten legez kanpo lanean

Martxoak 23an baserritarrok Oñeder SA-k Basarte Industrialdean duen enpresa martxan ari zela ikusi genuen, aurreko egunetan ere, bertan Oñederren

## datua

EAEko 89 herrik daukate gomendatutako zarata baino handiagoa sortzen duen industria eremua; Azpeitia da bat.

kamioien joan-etorriak somatu genituen. Berehala, Azpeitiko Udalarari eman genion aktibitatearen berri, enpresa honek ez baitauka altzairutegietako hauts arriskutsuak gorde edota erabiltzeko baime-nik. Hautsok, osasuna eta ingurugiroarentzat arrisku handia suposatzen dute, zinka, beruna eta kadmioa bezalako hauts toxikoen kopuru handiez osatuak baitaude.

Gaiaren garrantzia ikusita, Azpeitiko Auzitegian

parte eman genuen. Epailak erregistratu eta Ertzaintzari laginak jasotzeko agindu zion.

Jose Mari Bastidak baserritarrekin izandako elkarrizketa batean esan bezala, udaltzainak txosten bategin zuten, esanez langile batzuk enpresako materialek kamioi batean sartzen ari zirela-eta. Baina ez zuten laginik hartu. Enpresa desmontatzen ari zirela pentsatu, eta agian, mugimendu hauek positibotzat hartu behar-ko lirateke.

Dena dela, baserritarrak Azpeitiko Udalak hartu beharreko neurriak hartuko dituelakoan dago, ez baita Oñederrek legea hausten duen aurreneko aldia.

**Santa Kutz-Basarte baserritarren elkartea**

**UZTARRIAREN OHARRA:** gutunak, ahal dela, motzak izan behar dute, bestela UZTARRIAK mozteko ahalmena izango du. Kartak bidali hona: UZTARRIA, 227 posta kutxa, Azpeitia. Edo, UZTARRIA, Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerrean. Edo, posta elektronikoko honetara: uztarrria@hotmail.com

## azketako ura



### Falta direnak

Xabier Alday



**A**zken egunotan itxaropenez betetzen gaituen balizko kultur etxea —egungo maizterren arabera katu etxea— izan dugu mintzagai, aurrekontuetan hitzeman zaiguna ez baitugu inoiz ahaztuko; kalean Euskara Elkarte bat sortzeko asmotan biltzera gonbidatzen gintuzten karteletaz hitz egin dugu.

Elkar entzuten ez genuela bolumena izugarri igotzen duten larunbat gauetako tabernetan jardun gara, kalean ezustean topatu ditugun ezagunekin hitz egin dugu, elkarrekin bildu ohi garen tabernatan berba egin dugu eguraldiaren gazi-gozaaz,

bakarrizketan aritu gara aurotoan, irratia bolumen ozeanean gindoazela. Km-k 00ko hurrengo ekitaldiaz aritu gara, aurrekoak gaintitzeaz gain hurrengo batzorde-antolatzaileari hautsi beharreko zenbat erronka zein-baino-zein-ikusgarriago ezarriko dizkion igarri asmoz. Hainbat egunez zerua estali digun keaz mintzatu gara, ibaian hilda agertutako arrainetaz, Xoxoteko festaz, Lagun Onak futbol taldeari buruzko liburua gaztelera idaztea otu zaionaren gibelaren tamainaz. Edonoren aurrean, ezein ordutan, isildu gabe mintzatu gara maiatzeko jau-

nartzeetaz ere, Gabonen moduan izugarrizko oturuntza eta oparien txantxan oinarrituzera datorren festaburuaz. Besteentzako ziren opariei enbidiaz beha mintzatu gara, aspaldian inoiz gurekin bat egindakoak berriro urrun somatzen ditugulako. Ez dugu inoiz askatasuna opari eskatu, dagozkien eskubideak betetzea baino.

Mintzo ginen edonon lekuko genituen, gose-greban.

Azken egunotan oraindik besteetan baino apur bat biluziago, bakartiago sentitu gara.

## otso beltz

Andoni Salegi



## gaia emanda

### Egañaren kea eta Diegoren txispa

Apustu bitxi batez nahi bada lilura korrikan ikustera plazara ingura, nahiz ta aldea egon bostetik hirura bata figura da ta bestea piura.

Bikote berezia bikote trinkoa, bakoitzak dauka bere nortasun tinkoa batak pauso xumea besteak brinkoa tren baporeduna ta tren elektrikoa.

Imanol Lazkano

# Uztaro

## Hautzaindegia

### 25 urte

**U**ztaro Hautzaindegia, duela 25 urte sortutako elkarte da, garai hartako guraso talde baten zituen beharrei erantzuteko asmoz sortu zen. Duela 25 urte Urola Erdian beste tokietan bezalaxe emakume asko kanpoko lantokietan sartzen hasi zen. Ondorioz haurrak zaintzeko leku egoki bat bilatu nahi zen, eta horretarako Azpeitiko Jesus eta Maria komentuko behoko solairuan kokatu zuten hautzaindegia.

Urte guzti hauetan gauzak asko aldatu dira gizar-tean, eta nola ez, hezkuntzan ere bai. Gaur oraindik garbi ikusten da herriak honelako hautzaindegia baten beharra baduela, hau baita Urola Erdiko 0-3 urte arteko zentru bakarra.

Honen jarduera Urola Erdiko herri guztietara zabalduta dago, nahiz eta nagusiki Azpeitiko herrira izan.

Uztaro Hautzaindegia-aren helburu nagusia, 0-3 urte arteko umeentzako zerbitzu baten eskaintza sustatzea da, haur hauen beharrei erantzun orokor bat emanez, hau da: afektibitatea, elikadura, aisialdia, heziketa, eta abar. Adin honek haurraren garapenean zeresan handia



duelako.

Zerbitzu hauek eskaintzen zaizkie nahi duten guraso guztiei, baina lehenetasuna dute, bai lanarengatik, edo beste edozein arazogatik umeen ardua zuzena hartu ezin duten gurasoak, gurasoekin egon ezin diren denboran umearentzat toki eta giro egokia berau baita. Gizartea gero eta gehiago ohartzen ari da haurraren garapenerako adin honetan lortutako nortasun eta autonomi pertsonalaren arabera eskolaratze garaian ezberdintasun guxtiago izango direla.

Hori kontutan izanik, Uztaro Hautzaindegia-aren zeregin nagusia haurrei erantzun orokor bat ematea da; hau da, nortasun eta autonomia pertsonala

lor dezaten saiatzea, eta nola ez, harreman guzti horiek euskaraz ematen direnez gero, haurrak hizkuntza horretan trebatzen dira, bere gorputza ezagutu eta kontrolatuz, ingurune fisiko eta soziala ezagutzuz, komunikazioa eta errepresentazioa aberastuz eta abar.

Hori guztia lortu ahal izateko bitarteko guztiak ditu: espazioak (gelak, ingurunea....), irakasle espezializatuak, programak etapa bakoitzerako egokituak, mailakako programazioa, irteerak, festak...

Ezin ditugu aipatu gabe utzi hautzaindegia adin desberdinetan lantzen dituen jarduera egokiak: komunikazio jarduerak, plastika, psikomotrizitatea, musika, ekintza osa-

#### BEHARRA

Gaur oraindik garbi ikusten da gure herriak honelako hautzaindegia baten beharra baduela

#### HELBURUA

Uztaro hautzaindegia-aren helburu nagusia 0-3 urte arteko umeentzako zerbitzu baten eskaintza sustatzea da

#### TALDE TXIKIAK

Haurraren jarraipena zehatza da, euren beharrak bete asmoz; horretarako talde txikiekin lan egiten da

garriak (Santo Tomas, Olentzero, Sebastian deuna, Ihauteriak...).

Haurraren jarraipena zehatza da, beraien beharrak bete asmoz. Horretarako talde txikiekin lan egiten da eta haur bakoitzaren txostena prestatzen da, umearen garapenean segimendua egiten delarik.

**Uztaro**  
**Hautzaindegia**

# Ibai-Eder erre da

Ehundaka arrain hil ziren

**P**asa den maiatzaren 16an ehundaka arrain hilda agertu ziren Ibai Eder ibaian Landetako industriguneko

isurketaren batek eraginda; amurruak, barboak, loinak eta ez-kailuak agertu ziren hilda.

Ez da aurreneko aldia, Ibai Ederren gertatu dena. Iaz, urriaren 21ean ere, Ibai Eder ibaian, oraingoan bezala, hildako arrainak azaldu baitziren, leku berean. Orduan, milaka izan ziren hilda gertatu ziren arrainak. Urriaren Ertzaintzak laginak jaso zituen, baina oraindik ez da jakin nork eta zerk eragin zuen Ibai Ederko arrainen hilketa. ■



Arrainak hilda, orain hiru bat aste. N. URANGA

**iRitZia**

## Berriro erre dute

Jexux Zelaia ■ biologoa

Erretako gunea Atxubiyen egindako neurketarako presaren azpitik zegoen, hortik behera zeuden hildako arrainak. Presaren ezkerreko horman bi ur-irteera daude, bata hodi handi eta borobila da, bestea karra-tua da, eta hormaren behean dago. Borobiletik ateratzen den ura askotan zikina da (txuriska eta aparrarekin) eta ibai ondoan uzten ditu hondakinak. Behekaldekotik itxuraz ur garbiagoa ateratzen da. Presa baino bost metro beherago eta baita ezkerrean beste hondakin iturri bat dago sasi artean izkutatuta eta hiruetatik zikinena dirudi, hondakin beltzak uzten baititu.

1999an ere hortik behera azaldu ziren hildako arrainak, orduan milaka izan ziren eta tamainuz handiagoak. Oraindik ez

omen dakite nork egin zuen kaltea. Ibaia errekupezen hasi denean, beste isurketa bat gertatu da, nahiz eta arrain gutxiago hil, kaltea handiagoa izango da, aurreko isurketan salbatu ziren gutxiak hemen joan zaizkigulako. Batzuetan hilketak prozesu naturalengatik gertatzen dira, baina hemen gertatu dena ez da horrela izan.

Urtebetean Ibai Eder inguruan aldaketa asko egin dira: ibai ertzetan beharrezkoak diren zuhaitz eta landareak mozten dira (Amueko zubi ondoko urte askotako makala bota dute), harrizko dikeak (Zubiolan) edo zulorik gabeko hormak egiteko (Atxubiyatik Landetaraino) eskabadorak ibai barruan sartuaz. Ibaiko harri guztiak mugitzen dituzte, ur-mailak aldatuz eta putzuak

suntsituz, arrain eta hauentzat janaria diren intsektuen bizitzarekin bukatuz. Hori gutxi balitz, obra bukatzean ibaia hondoa laua uzten dute, gehienez 20 zentimetro mailarekin eta arraintzat (geratzen badira oraindik) izkutatzeo lekuri gabe.

Errezildik datorren errekaaren egoera ez da hobea, jaiotzen denetik behera abereen txixa askotan botatzen dutelako, eta hori konpontzeko inork ez du ezer egiten.

2000.rako ibai eta erreka guztiak garbiak egon behar dutela esaten zuten. Horrela jarraitzen badugu gure ibaietan ez da harrikerik ere geratuko.

Kalte handia egin diote Ibai Ederri eta dirudienez, inori ez zaiola ajola. Honen konponbidea zaila izanik ere, horrelakoak berriro ez gertatzeko norbaitek (erakundeak) neurriak hartu behar ditu, kalte hau ezin delako diruarekin bakarrik konpondu, bestela gure Ibai Ederri izena aldatu eta Ibai Hila deitu beharko diogu.

**IREDE ESTETIKA**



- + ESTETIKA OROKORRA
- + TATUAIAK
- + MIKROPIGMENTAZIOA
- + SOLARIUM BONO (6.500)
- Azken teknologia:
- + LASER BIDEZ BEHINBETIKO DEPILAZIOA
- + MASAIA:

- Linfatikoa
- Antizelulitika

Urbite 4, behea AZPEITIA  
Tel. 943 15 15 09



Azpeitia  
Kimu bat

UROLAKO JARDINERITZA

Azpeitia - Urrestilla bidea  
Tel./ Faxe: 943 15 00 85  
**AZPEITIA**



**CAJA LABORAL**  
**EUSKADIKO KUTXA**

# Udalaren diru laguntzak amateurren euskarazko lanei

Deialdia ireki da euskal antzerki lanak bultzatzeko asmoz

- ▶ Udalak 2000ko Antzerki Topaketen barnean deialdi bat ireki du
- ▶ Helburua euskal talde amateurren antzezlanak jendaurrean estreinatuzeko aukera ematea da
- ▶ Jendeak gehien gustatzen zaiona aukeratuko du


Uztarrria

**P**roiektu berriak aurkezteko epea, 2000ko ekainaren 1etik 2000ko uztailearen 1a artekoa izango da. Era berean, azken erabakia, irailean, prentsa eta komunikabideen bidez plazaratuko da.

Azpeitiko Udalaren eskeintza honako hau da: Udalak produkzio berriaren gastuaren zati bat subentzionatuko du. Antzerki taldeak, alde aurretik, kontratuaren sinadurarekin batera, diru laguntza horren %60 jasoko du, eta gainerako %40 berriz, emanaldiaren ondoren. Publizitate-zabalkundeari dagokionez, Azpeitiko Udalak plazaratuko dituen kultura programa guztietan azalduko da, baita Euskadiko Euskal Antzerki Topaketetako eskuprogrametan eta egingo diren Irrati programetan ere.

Diru laguntza eskuratu nahi izanez gero, hainbat baldintza bete beharko dira, besteak beste, aztezlana Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketen barnean estreinatzea, antzerki lana euskaraz izatea, proiektua Azpeitiko Udaletxean epearen barnean aurkeztea eta antzerki taldeak udalaren erabakiak onartzea.

Azpeitiko Udalaren Kultura Batzordeak eta Arte eta Diseinu Zentroak antolatutako aurtengo Euskal Antzerki Topaketen kartel lehiaketara 25 lagun eta 32



Euska Antzerki Topaketen irudia.

INAKI AGIRRE

**Antzeztaldeak alde aurretik diru laguntzaren %60 jasoko du eta ondoren %40**

**Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketen barnean estreinatu beharko da antzerki lana**

lan aurkeztu dira. Aurkeztu diren lanen erakusketa Udal-etxearen beheko solairuan izango da maiatzaren 21etik hasi eta ekainaren 4a bitartean. Astelehentik ostiralera, arratsaldeko seietatik zortzietara. Larunbatetan ere erakusketa goiz eta arratsaldeko ikusteko aukera izango da, eguerdiko 12:00etatik 13:00era eta arratsaldeko seietatik zortzietara. Igandeetan berriz, eguerdi partean: 12:00etatik 14:00etara.

Aurten lehen aldiz, ikuslegoak gehien gustatzen zaion kartela aukeratuko du eta, horretarako hain zuzen ere, erakusketan bertan txartel batzuk izango dira botoa eman ahal izateko. ■



## udaletzeko erabakiak



**Aurrekontuen likidazioa.** 1999ko Euskara Patronatuaren, Udal Patronatuaren eta udalaren aurrekontuen likidazioa onartu zen apirilaren bosteko osoko bilkuran.

**Udalaren ordezkariak ikastetxeetan.** Azpeitian dauden ikastetxetako batzarretan parte har dezaten, udalaren

ordezkariak izendatu ziren, ikastetxeak hartzen dituzten erabakietan udalak ere parte hartzeko aukera izan dezan.

**Erroak Elkar-tearekin hitzarmena.** Hitzarmenaren bidez, Sartu programako Erroak Elkar-tearekin lan mundura sartzeko ekintzetarako lokalak elkarrekin erabiltzeko hitzarmena onartu zen.

### EEE-EVE erakunde-arekin hitzarmena.

Azpeitiko Udalaren eta Energiaren Euskal Erakundearen arteko lan-kidetza-hitzarmena onartu zen, argindarra aurrezteko eta eraberritze argindarrak bultzatzeko helburuarekin.

### Udaleko lanpostuen zerrenda.

2000ko ekitaldirako Udalaren Lanpostuen zerrenda; hau da, udalaren funtzionamendurako behar diren lanpostu guztien zerrenda

onartu zen. Honekin loturik, hamabi lanpostu sortzeko eskaintza publikoa zabalduko du udalak hurrengo hilabeteetan. Eskainiko diren lanpostuak, berriz, honako hauek izango dira: Enparan Dorretzeko harreragile bat, teknikari soziokulturala, gizarte laguntzaile bat, administrari soziokulturala, bost udaltzain, lehenengo mailako ofizial elektrizista bat, eta kale garbiketarako bigarren mailako bi ofizial.

# Udako programak

## Uztailean izango dira 3 urtetik 17ra bitartekoentzat

► **Uztaileko adinaren arabera hiru programa aurkeztu ditu Gaztedia Sailak** ► **Aurten aurrenekoz uda txiki antolatu da txikientzat** ► **Udan Jolas eta Udan Abentura izango dituzte gaztetxoek**

Uztarrria

**U**dalaren Gaztedi Sailak prestaturiko hiru programa horien artean, hamaika egunetako bi txanden artean aukeratu dezakete ikasleak: uztaileko lehen eta bigarren hamabostaldiaren barruan bestea. Izena emateko epea maiatzaren 20an irekiko da eta

ekainaren 2a artekoa izango da. Esku hartu nahi dutenek ikastetxean eman beharko dute izena.

### Abentura eta jolasa

Udan Abentura, abentura bilatzen duten gazteentzat aproposa izango da. Bertan, aterpetxe batean egonaldi bat dago aurreikusita. Baita Barranco Jeitsiera, espeleologia, senderrismoa, rafting-a eta Ordesa bailaran egingo den irteera bat ere, beste zenbait ekintzarekin batera, amaitu aurretik esperientzien ebaluaketa egiteko aukera izango dute, eta guztiari errematea emateko, afari eder bat.

Udan Jolasaren barnean,

neska-mutilak egun-osoko irteerak egingo dituzte, Zumaiara, Igeldora eta Aiara, gero ere, eskulanak egiten ikasteko tailerrak izango dituzte. Gainera, egun bereziak antolatu dira propio beraientzat: San Fermin Txiki, Bizikleta Irteera eta Indioen Eguna bezalakoak.

Gaztetxoek ere ez dira inoren inbiritan geldituko eta gogotik gozatzeko aukera izango dute. Aurten, lehendabiziko aldiz, Udan Txiki programari esker, egun osoko irteerak izango dituzte: hondartzara eta Aiara. Era berean, adinera egokitutako tailerrak izango dituzte. Eta baita egun bereziak ere, esate baterako, San Fermin Txiki eguna eta Pirata eguna. ■

**Egin publizitatea UZTARRIAN**

Telefono zenbakia:  
**15 03 58** (edo utzi mezua)

**OLA KOR gozotegia**  
Urbizarte Auzunea, 1 - 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa) - Tfno.: (943) 81 46 65

**LUBA**  
- AHOLKULARITZA FISKALA,  
LABORALA, KONTABLEA  
- ASEGURUOK  
- FINKEN ADMINISTRAZIOA  
Emparan kalea, 30  
Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75  
E-mail: Luba.ase@Euskalnet.net

**motxien**

**Herriko ingurugiroaren diagnostia proiektua martxan**

Udaleko ingurugiro batzordeak bultzatuta EHUko Ekologia sailleko bi ikertzaile udalerriko gune naturalen diagnostia egiten ari dira. Ondoren, ingurugiro batzordeak lortutako informazioarekin, inguruaren egoera hobetzeko kudeaketa- proposamenak eskaintzeko asmoa du.


**Juan Karlos Arruti eta Joxin Arruti gose greban**

Herriko bi presoak euskal presoak euren eskubideen alde burutzen ari diren preso greba mugagabeen daude. Juan Karlos Arruti Puerto I kartzelan dago eta apirilak 29an ekin zion gose grebari. Joxin Arruti berriz Martuteneko espetxean dago eta maiatzak 1etik gose greban dago.

**Trenaren Museoan Gonzalez lokomotora neurri txikian**

Museoen eguna ospatzen zela maiatzaren 14an, Trenaren Museoak Gonzalez lokomota neurri txikiagoan reproduzitua jarri zuen erakusgai, bisitari guztien harri-durarako. Tren txiki hau, Jose Gonzalezek 1925-1936 urte bitartean egina da, kea ere botatzen du tximitik.

**erretiratutan**



IRAKI URANGA

**Lehen mailako pilota partidua**

Pilota zaleek lehen mailako pilotarekin gozatzeko aukera izan zuten maiatzaren 5ean Izarraitz Pilotalekuan, bertan Mikel Goñi eta Fernando Goñi, Aimar Olaizola eta Jose Mari Zezeagaren aurka aritu ziren. Ondoren beste pilota partidu bat izan zen

Iban Otaegi azpeitiarra eta Sukia, Iban Etxaniz eta Hirigoienen aurka.

**Udalak deituta Maiatzak 8an Jose Luis Lopez Lacalleren kontrako atentatua**

salatzeko jende ugari bildu zen kontzentrazioa isilean plazan, EAJ eta EA udal zinegotziak bertan parte hartu zuten, hainbat herritarrekin batera. Bezeran ere —Lacalle hil zen egunean—, beste kontzentrazio bat egin zen plazan.

**Lacalleren atentatuaren aurka kontzentrazioa**



NEREA URANGA

## EAk antolatuta kafe inguruko hitzaldiak



NEREA URANGA

Maiatzeko larunbata arratsaldetan Eusko Alkartasunak antolatuta Elkartetxean, Kafe inguruko hitzaldiak izan dira. Lehen hitzaldian hizlari Gorka Knörr EAKo idazkari nagusia, Europa gai bezala hartuta. Bigarren hitzaldian Foru Aldundiko Antton Jaime eta Eusko Jaurlaritzako Migel Angel Delgadok hitzegin zuten errepideak eta etxebizitzak gaitzat hartuta. Hirugarren eta azken hitzaldian Begoña Errazti alderdiko presidentea izan zen hitzaldiko gonbidatua.

eta etxebizitzak gaitzat hartuta. Hirugarren eta azken hitzaldian Begoña Errazti alderdiko presidentea izan zen hitzaldiko gonbidatua.

## Kale Gorrianen kanpaina martxan da



NEREA URANGA

Maiatzean Kale Gorrian taldeak udalari egin dizkion eskakizunak ezagutzera eman asmoz kanpaina bati ekin dio. Maiatzak 12 eta 13 bitartean kanpaldia egin zuten udaletxeako arkupetan. Maiatzak 20an manifestazioa egin zen "Udaletxean etxebizitza politika egoki bat noizko?"

lemapean. Eta ondoren garagardo festa.

## motxean

### UZTARRIA aldikaria falta omen da buzoietan

Azken hilabeteotan hainbat dei eta kexu jasotxo izan ditu UZTARRIAK. Ahaleginak egiten ditugu aldikaria ahal eta azkarren eta egokien banatzen. Baina jaso ez dutenei ohartarazi, bidean ale bakarren bat galdu bada ere, ez direla hainbeste izan. Buzoietan banatu, eta gero falta izaten dira. Besteen buzoietatik hartzen dutelako harpidedun edota bazkide ez diren bizilagunek. UZTARRIA aldikaria jasotxo nahi izanez gero gure telefonora deitu eta harpidedun doan edota bazkide urtean 3000 pezeta bakarrik ordainduz. Aldizkaria buzoian falta baduzu, jarri ahalik eta azkarren UZTARRIAREKIN harremanetan eta bidaliko dizugu beste ale bat.



### Gipuzkoako Eskolarteko Bertso txapelketa finala

Gipuzkoako eskolarteko neska-mutikoen bertso txapelketa finala Azpeitian Izaurreaitz pilotalekuan jokatuko da ekainaren 2an.

**motxien**

**Iñigo Labakari omenaldia**


laz hil zen Iñigo Labakari azpeitiar gaztea omendu zuten bere lagunek Garmendipen maiatzaren 27an, egin zen hiruko futbol partidu a. Bertan, Lagun Onak F.T.ko jubenilak, Ikasberri Ikastolako Jubenilak eta bere kuadrilakoek osatutako futbol taldeen arteko partiduekin omendu nahi izan zuten Iñigo.

**Eliz Kalean festak hilaren bukaeran**

Ekainaren 30 eta uztailaren 1ean Eliz Kalerrek kaleko jaiak ospatuko dituzte. Aurretik urtero ohi bezala, kaletarren artean hain ezaguna den XIII. Erretz txapelketa izango dute mendizaletan. Makina bat ekitaldi antolatuko dituzte Eliz kalerrek kaleko festa oparoak ospatu ahal izateko.

**erreturatutan**

**Presoen alde solidarioak zubian zintzilikatu ziren**



Presoen eskubideen alde maiatzaren 25an, Sanjuandegiko bidegurutzeko zubian zintzilikatu ziren presoen aldeko bi solidarioak. Biak soka bakarrari lotuta eta zubiaren alde banatan zintzilikatuta egon ziren ordu erdi pasa. Bitartean Azkoitirako bidegurutzea itxita izan zen. Ertzaintza etorri, soka moztu eta solidarioetako bat atxilotu zuen. Gauerdirako atxilotu zuten solidarioa libre utzi zuten. Presoen eskubideen alde, aste osoan zehar hainbat greba eta mobilizazio izan zen. Hainbat lantegi, taberna eta dendarik bat egin zuten lanuztearekin. EH-ko zinegotziak ere, bezperan konzentrazioa egin zuten plazan.

UZTARO HAURTZAINDEGIA  
1975-2000  
XXV. Urteurrena

0-3 urte arteko haurren txokoa

UZTARO HAURTZAINDEGIA  
Jesus eta Maria Komentua  
943 81 31 90  
20730 AZPEITIA

DOSSIER - MASKAR

estetikako azken teknikak

Enparan, 15-1  
Tel. 813898

KIRURI

JATETXEA

Loiola hiribidea, 24  
LOIOLA - AZPEITIA  
Tlfnoa.: 943 81 56 08  
Faxa.: 943 15 03 62

# Zaborrekin zer?

## Zer gertatzen da etxepean uzten dugun zabor poltsarekin?

Idoia Mendizabal

**G**ehienok ikusi dugu kamioia zaborren edukiontzia husten, baina nora demontre joaten ote da? Guri zer axola, ezta? Zabor poltsa begi bistatik galdu bezain laster ahazten gara. Gure ardura bakarra kaleak zabor poltsez beteak ez ikustea da. Pentsa-kera hori aldatu beharrean gaude, egun zaborrak ondo kudeatzen ez baditugu arazo larriak izan baititzakegu.

Gipuzkoan, zaborrak zaborte-gietara eramaten dira. Mendi aldean kokatutako eta zaborrak

jasotzeko prestatutako lekura. Han egunero txikitu eta zanpau egiten dira, usteldu eta leku gutxiago okupatu dezaten. Ondoren lur geruzaz estaltzen dira, haizeak zaborra ez zabalteko, usaina ez zabaltzeko, eta intsektu-eta bestelako animaliak ez ugaltzeko.

Urola Erdialdeko Mankomunitateko zaborrak, hau da, Azpeitia, Azkoitia, Zestoa, Aizarnazabal, Errezil, Beizama eta Bidegoianekoak, Lapatx zabortegira eramaten dira. Estatistikei kasu eginez, gutariko bakoitzak kilo bat zabor sortzen dugu egunean. Pentsa zenbat zabor iristen den egune-

ro zabortegira! Noiz arte jarraitu ahal izango dugu horrela?

Zabortegeiek bizitza bat dute. Betetzen denean, itxi eta beste leku bat bilatu behar izaten da. Beraz, zer egin dezakegu inguruneak zaborrez bete ez daitezten?

1. Sortzen dugun zabor kopurua **MURRIZTU**: Hau da irtenbiderik garrantzitsuenak.

2. Gauzak zaborretara bota aurretik ea **BERRERABIL** ditzakegun ikusi.

3. Aurreko bi irtenbideak praktikan jartzen saiatu ondoren, zaborrak **BIRZIKLATU** behar ditugu. Birziklatuz osagaiak berreskuratzen ditugu, eta horrela naturako baliabideak aurreztean lortzen dugu.

Ekainean 4R Fundazioak zaborren kudeaketa egokiari buruzko sentsibilizazio eta informazio kanpaina burutuko du. Honen barruan Arazi Ingurugiro Zerbitzuak kooperatiba Elkarteak burutuko dituen ekintzekin. ■



**MAKINA  
ERREMINTAREN  
INSTITUTUA**

**INSTITUTO  
DE MAQUINA  
HERRAMIENTA**

### INFORMAZIOA:

San Roke Auzoa, 1 - Elgoibar, Gipuzkoa  
Tlf: (34) 943.744132 - Fax: (34) 943.744153  
e.mail: amaia@fmh.es



## 2000/2001 IKASTURTEA HEZIKETA ZIKLOAK

### GOI MAILA (A eta D ereduak)

- PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA
- MEKANIZAZIO BIDEZKO PRODUKZIOA
- INDUSTRI EKIPOEN MANTENIMENDUA

### ERDI MAILA (A eta D ereduak)

- MEKANIZAZIOA



**Izena emateko epea: Ekainaren 1etik 12ra, biak barne**

# Eguraldiaren berriemaile

Onintza Segurola Euskadi Irratiko 'eguraldi-emakumea' da

► **Onintza Segurolak Euskadi Irratian eguraldiaren berri ematen du** ► **Etxetik, metereologoekin hitzeging mapak behatu eta iragarpenak egiten ditu** ► **Lan zaila dela dio**


Nerea Uranga

**O**nintza Segurola kazetaritza ikasketak egiten ari zela hasi zen irratian lanean, zortzi urte daramatza Euskadi Irratian eta telebistan informatiboetan ere jardun izan du. «Kazetaritzako hirugarren mailan nenbilela hasi nintzen Euskadi Irratian, gabonetan, udan-eta ordezkapenak egiten. Denetik egin dut irratian, informatiboetan, kiroletan, programetan-eta. Aurten ETB-ko informatiboetan bi hilabetez aritu naiz».

Hilabete batzuk badira Euskadi Irratian eguraldiaren berri ematen hasi zela. Egunero, astegun eta asteburu, goizeko bostak eta erdietan hasten da lanean, metereologoekin hitz egin, etxean EITBk jarritako pantailan mapak begiratu eta lurretako metereologia zentruarekin harremanetan jartzen da. Eguraldiaren iragarpena prest duenean, Euskadiko Irratian eguraldiaren berri ematen du eguardi artean eta arratsaldean. «Metereologoekin hitz egin, mapak kontsultatu, tenperaturak eta zenbat euri egin duen jaso, beti eguraldiaren berri eman baino lehen ohetik jeiki eta kanpoan ze eguraldi egiten duen begiratzen dut. Etxetik irten orduko ere zerura begiratzen dut».

## 'Eguraldi-emakumea'

Betidanik interesatu izan zaizkio eguraldi kontuak Onintzari.



Onintzak etxean duen pantailatik behatzen ditu mapak.

NEREA URANGA

**«Euskal Herrian asko aldatzen da eguraldia; Andoainen urdin eta Lasarten euria egin dezake», dio Onintza Segurolak**

«Odile Kruzetak eguraldiaren berri ematearena eskaini zidanean, niri eskaini izanaren arrazoietako bat ni baserritarra izatea zela azaldu zidan, baserritarra izateari garrantzia ematen diote. Baserritarrek asko begiratzen diote eguraldiari, bela-

rretarako-eta. Nik neuk ikusi dut gure baserrian, han beti entzun ditut tenporak eta zozomikotearen kontuak».

Metereologa ez bada ere, eguraldi-emakumea dela dio Onintza Segurolak. «Ni metereologa ez naiz, baina beti interesatu izan zait eguraldia. Lan hau eskaini zidatenean ere, arduradunek uste zuten emakumeak ere gai garela eguraldiaren berri emateko, besteak bezain ondo egin nezakeela uste zuten».

## Iragarpen zailak


Euskal Herria txikia bada ere, bertako eguraldiaren berri ematea zaila dela iritzi dio Onintzak. Euskal Herrian kilometro gutxitan eguraldi desberdina egiten

duela dio: «Oso oso zaila da Euskal Herriko eguraldiaren berri ematea. Euskal Herria oso txikia da, baina denetik dago. Andoainen urdin egon daiteke eta Lasarten euria. Askotan eguraldi bat iragarri eta jendeak bere parean ez badu ikusten akabo. Kilometro gutxitan asko aldatzen da».

### Konpromiso handiko lana

Eguraldiaren berriemailearentzat badira iragarpenak konpromisu handia eskatzen duten egunak, jai egunak eta oporraldiak. Eguraldia iragartzeak erresponsabilitate handia eskatzen du, jendea egunero adi baita. Onintzak ere badaki, jende askok belarria jarria duela berak zer iragarriko Euskadi Irratietako uhinetatik barrena. «Herri Urratseko eguna-eta erresponsabilitate handikoak dira. Asteburutan berriz, jendea ostegunetik hasten da galdezka, ea asteburuan ze eguraldi egingo duen-eta. Ordea, egun batzuk aurreragotik ez da garbi ikusten ze eguraldi egingo duen, 10etik 8 ez da garbia. Ze eguraldi egingo duen 24 ordu aurretik jakiten da».

Uda gertu den einean, jendea eguraldiaren berri izateko irrikitan da. Udan jendeak izaten duen jakinminaren berri jaso du Onintzak Pello Zabala eta Andoni Aizpurren ahotik. «Uda gerturatzen doala-eta baserritarak adi daude eguraldiaren berriei. Txarrena, uda garaia dela uste dut. Euskal Herria ez da Andaluzia bezala, hemen mendiak eta daude. Eta haizea aldatzea nahikoa da eguraldia aldatzeko». Ea bada, uda deon gustokoa iragartzen digun Onintzak.



NEREA URANGA

## Tenporak eta zozomikoteak

**Baserrian ikasi du Onintzak** tenporen eta zozomikoteen inguruan. Onintza Segurola Matximentako Largarate baserrikoa da. Etxean edota eta bere osaba den Nikolas Seguroleri ere galdetu izan dio zalantzaren bat duenean: «Nikolasek lehengo gauzetaz eta asko daki, tenporen inguruan, haizeak eta abar. Bai Nikolasi baita etxekoei ere galdetzen diet. Eta alderantziz etxekoak ere ze eguraldi egingo duen galdetzen didate».

Jendeak tenporetan duen fedea errespetatzeaz gain, begiratu eta tenporen berri eman beharra dagoela azpimarratzen du Onintzak: «Nahiz eta nik asko ez sinistu tenporetan, jendeak fede izugarria du. Aurten fresko eta lehorra gelditu zen udaberria, ordea, apirilean euria besterik ez du egin».

Tenporak nola gelditzen diren eta ze behatu behar den ere badaki Onintzak: «Tenporetan

jendeak ze eguraldi gelditzen den hartzen du kontutan, baina haizeak izugarriko garrantzia du, eguneroko eguraldi iragarpentan bezala, tenporetan ere hala gertatzen da».

Onintzak berak tenporetan baino zozomikoteetan fede handiagoa du. «Zozomikoteetan gehiago sinisten dut eta normalean txarra gelditzen da».

Onintzaren iritzi egunean eguneko iragarpenak du garrantzia gehien. Bost egun aurretik eta eguraldia iragartzeak eta bete betean asmatzea ezinezkoa da. «Egunean egunekoa da, miraririk ez dago, hemendik bi hilabetera ze eguraldi egingo duen esateko».

Udaberrirako lehorra eta freskoa gelditu zen, datorren urtaroko tenporak ekainean izango dira. Udarako eguraldiaren berri nahi duenak, eta tenporetan fedea duenak ekaina arte zain egon beharko du. ■

ICIAR SAN JUAN

Solarium bertikala  
Estetika

Loiolabide, 19 behea AZPEITIA Tfno.: 943 81 02 17

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

gizarte-ekintza  
obra social

Uztarría Kultur Koordinadorak azpeitiarren ipuin, poesia, liburu, antzerki, saiakera, bertso, artíkulu bilduma edo euskaraz idatziriko beste genero bateko lan sari-tuak edo merezi duten lanak argitaratuko ditu


hemendik aurrera UZTARRIA herri aldizkarian. Gehienetan laburpenak izango dira, tartea baita eragozpen. Uztarría Kultur Koordinadorak hiru helburu dauzka erabaki honetan:  
1. Herriko egile ezagu-

nen eta ezezagunen presentzia ziurtatzea azpeitiarren aurrean.  
2. Egile horien lanak ezagutaraztea (askotan batzuk izenez baino ez dira ezagunak).  
3. Jendea idaztera bultzatzea.



## Arimaren jantzia

Fernando Morillo ■ Debako Tene Mujika lehiaketako aipamen saria



Zein bizkorra, zein bizia nitudien aipatze-ko ez bazen, behintzat. Baina nik ez nuen bizkorra izan nahi. Aukeran, bederen. Nahiago nuen Usoa izan. Usoa bezalakoa.

Maitasun eskutitz bat inoiz jasotzen ez duen horietakoa naiz. Bati baino gehiagori, ausaz, barregarria irudi lekiok haxe. Haxe eta aipatuko nituzkeen beste hainbeste gauza ere... Gorputza, arimaren jantzia baino ez omen da, diote zenbait-tek, eta norberaren barnea dela egiazki balio duena. Ideia putarik ez dute. Edo zera baino elezuriagoak dira. Faltsu madarikatuak baino ez. Biak, ziurrenik. Kabroiak halakoak. Eta esan beharrik ez dago, zertaz ari naizen ondo baino hobeto dakidala, damurik. Arimari dagokiolarik, agudo baino agudoago salduko nuke nik, aukerarik banu, non sinatu behar den jakingo banu. Aski merke salduko nuke. Kostu-prezioan.

Naturak dohainak eta irrikak ezartzen dizkigu. Inoiz edo behin asmatzen du. Beste guztietan, huts galantak eta samingarririk egiten ditu, ordea. Biluzik gatoz mundura, bustiak eta goseak amorratuta. Eta gero gauzak okerragora egiten dute, ez bairik gabe. Nire kasuan, naturak (edo dena delakoak) errakuntza nabaria egin zuen. Irrikerz gainezka utzi ninduen, eta ia dohain estetikorik gabe. Hain behar handiak, eta hain arma gutxi asetzeko. Eta hori ez da zuzena. Ez. Ez dago inolako eskubiderik.

Eta ez da ezer bereziagatik. Ispiluaren aurrean jartzen naizen gutxietan, ez dut aparteko ezer desatseginik aurkitzen. Ez, ez dut begi okerrik edo antzeko seinale ikusgarririk. Orokorrean dudana nolabaiteko arrunzeria xarmagabea da errudun, nik uste. Espresiorik, bizitasunik gabeko bisai arrunt madarikatu bat. Guztiz okerreko txartela egokitu zitzaidan, itxuraz.

Zenbaitetan, gogorrena, Usoa pairatzea izaten zen. Gure gurasoak oso bidaiariak izan dira betidanik eta aukera duten ba-koitzean alde egiten dute norabait. Etxea libre geratzen da Usoa eta niretzat. Eta Usoak ekartzen dituen mutilentzat, jakina. Geneen kontua izango da agian, ez dakit.

«LORE bati hostoak kenduagatik ere, ez duzu haren edertasuna atzemango» (R. Tagore).

«Tamalgarría benetan, jeinuak edertasuna baino gehiago irautea» (O. Wilde).

«Emakumeek euren edertasunarekin jolasten dira, umeak labanarekin bezala, eta min hartzen dute» (V. Hugo).

Nik ez dakit zer ote den edertasuna. Dakidana da, zerbaitek huts egin behar izan zuela balizko egitasmo unibertsean, aipaturiko edertasuna, ez bat eta ez bi, batzuei soilik eskaintzeko. Horren ildotik, jainkorik balitz, gustura izango nuke

solasaldi bat berarekin, zenbaterainoko putakumea den garbi uler dezan.

Txikitatik izan nuen dohakabeen orbaina bekokian sendo josia. Itsusia izatearen estigma latza. Eta are latzagoa, Usoa bezalako ahizpa izanik alboan. Hura bai, ni ez bezala, polita. Oso. Erabat. Ikara ematen duen edertasun apartakoa. Ni baino urtebete gazteagoa izanik, maiz alderatzen gintuzten, nola ez.

- Zein polita den Usoa -, zioten betiere. Berdin zion alboko auzotarra edota izebaren bat izan. Usoa, beti Usoa. Ez zuten inoiz bestea, Larraitz, ahotan hartzen.



Gauza da nire ahizpak ere oso gustukoa duela sexua, eta ez dela moralismoez askorik kezkatzen. Ni sexu hutsarekin konformatuko beharko banintz ere, maitasunik ezean, Usoak ez zuen sexua besterik nahi izaten, antza. Mutilak, bata bestearen atzetik igarotzen zituen, inolako lotura sentimentalik gabe. «Ikasten» ari omen zen eta. Hori zioen.

- Ikasten ari naiz-, berresaten zidan batean eta hurrengoan ere.

- Ez al zaizu gogorra egiten lore batetik bestera joatea?

- Hara bestea! Irten zaigu sermoilari moralista. Zuk ahal izango bazenu, gauza bera egingo zenuke, Larraitz-. Bazekien hori esateak min handia egiten zidala. Eta emango nuke berari azpimarratzen zituela hitz horiek, gainera.

- Kontuz ibiltzeko esaten dizut bakarrik-, azaltzen nion. Egiaren erdia baino ez zen, noski, eta biok genekien. Berak zuen arrazoi osoa. Ondamuak joa nengoan.

- Etorriko da seriotasunen garaia aurre-rago. Gazteak gara orain!-, aldarrikatzen zuen.

Gazteak ginen, bai. Baina bera polita zen. Eta ni ez.

Etxea libre egoten zenez, arestian aipatu bezala, sarritan ekartzen zituen Usoak bere mutilak gurera. Eta bere gelan sartzen bazen, ondo. Behin baino gehiagotan harrapatu nuen ahizpa, egongelan edo sukaldean, bertan baten batekin jolasean. Eta ez zen eroso izaten niretzat. Ez gaizki irudi zekidakeelako, ezta gutxiagorik ere. Nire gabeziak ezartzen zizkidan mugak, etengabe gogorazten zizkidalako baizik.



**Fernando Morillo**  
1974an jaio zen.  
Orain hiru bat urte hasi zen idazten, baina jadanik hainbat sari irabazi ditu. Ipuin arloan, Donostia Hiria du garrantzitsuena; Eibarkoa, Portugalera, Gabriel Arestiko akzesita edo Tene Mujikako aipamena ere lortu ditu. Elhuyar Zientzia Saria bi aldiz irabazia du.

- Ez dizu axola, ezta?-, galdetzen zidan.

- Ez, ez. Egon lasai.

Horixe axola zitzaidala!

Bere gelan egoten zenean ere, banituen neure bihozmin dosiak. Dosi hilgarriak, hurrengo orduak lasai egiterik ezin izango bainuen. Ni nire gelara joaten nintzen, horma mehe bakar batez banaturik baitaude biak, eta entzuteari ekiten nion, bekaizkerian itota. Usoaren hasperen sarkorrak entzutean (ez zen batere ahalketzen nire ahizpa gero!), mutilaren besoetan zegoena ni nintzela amesten nuen. Aitzitik, burukoa baino ezin nuen izan ene beso laztanberen artean. Ohearen kekuak aditzen nituen, mutilak eta ahizpak

elkarri eragiten zizkieten jaukimenduen ondorio gisa. Eta zizpuru gehiago. Isilaldi labur bat.

- Beste behin-, eskatzen zuen Usoak.

Eta auhenak berriro. Behin baino gehiagotan amaitu nuen negar malkotan, oheko izaren artean bakarrik, nire grina, eskuen fereka irrikatsuez baretzen ahalegintzen nintzen bitartean. Zergatik zuen Usoak hain erraz dena? Zergatik?

Dena izaera ote? Adrianek esan zidan, nire seta zaindu behar nuela, ozpinegia izateko joera dudalako batzuetan. Baina nik ondo dakit hori ez dela karia (nagusia, bederik), ondorioa baizik. Nahi eta ezinaren ondorioa.

Adrian. Lagun dudan mutil bakarra da. Benetako laguna, esan nahi dut. Berak, nire burua nik neuk baino hobeto ezagutzen duela jokatu nuke askotan. Homosexuala izan behar... Ordea, ezin kezatu. Beharbada horrelakoa ez balitz, ez baitzitzaidakeen hurbilduko. Batek daki. Lur jota nagoen gehienetan joaten nintzen. Bera niregana etortzen den moduan, beste hainbestetan. Erremediorik gabeko negarti bihurtzen gara aldika. Inoiz ere egon gara mutil beragatik apletak emanda, gainera, eta ez zen arras samurra izan bion saialdiak elkarren arierio bihurtu beharra. Biok kale egin genuenez, ostera, alaitasunez hartu behar izan genuen gauza. Mutil hura ez zen guretzat, nonbait.

- Berarentzat kalte!

- Horrelako aukerak izan ditu... Itsua izango da. Ez gaitu merezi.

Eta barre egiten genuen. ■



## HORTZ KLINIKA

Dr. Antonio Rafaniello

- Odontologi Orokorra.
- Odontologi Estetikoa.
- Ahozko Zirujia.
- Inplante integralak.
- Protesis mugikorren sustutuzioa, protesis fijora.
- Pieza gabekoa, sustutuzioa pieza fijora.

Enparan nº8 - 1º Tel.: 81 67 36

## MITXEL AROZTEGIA S.L.



Barruko ate eta tolesgarriak  
Ate trinko eta blindatua  
Oimaulki parketa eta frisoak  
Aramairu horma sartuak  
Leihoak - Harotzlanak

Arretxe kalea, 19 - Landeta Industrialdea  
Tel./Faxa: 943 81 01 65 - Apdo. 12 - 20730 AZPEITIA

ERDI KALE, Behea z/g

Tel. - Faxa: 943 15 12 91


AZPEITIA

# IOSU OPTIKA

OPTICO · OPTOMETRISTA · LENTES DE CONTACTO

KILOMETROAK

HELBURU



Diego Garciak eta Andoni Egañak lasterka apustua dute 25ean, Azpeitiko zezenplazan, Kilometroak'00-ren alde.

Diegok bost kilometro egin baino lehenago, Egañak hiru eta erdi egin beharko ditu. UZTARRIAK biak bildu ditu.

\*\*\*\*\*  
ENEKOITZ ESNAOLA

**L**ehenengo aldia diat zezenplaza honetan sartzen naizela, baina uste diat ondo moldatuko naizela», bota du plazan sartuko orduko Andoni Egañak; Martxialeneko keari begira dela esan du, ordea. Dena den, sasoiko dago Egaña, fin-fin. Zaurutzen, Astin, makina bat aldiz entrenatzen da eta datozen egunetan «serie serio» batzuk egingo dituela ere badio. Baina hilaren 25ean Egañak berak ere kea botako du Diego Garciaren kontra, azken hau hasi baita ondo jartzen, pare bat hilabetean giharretako arazoekin egon ostean.

Kilometroak'00-ren alde ariko dira biak, Azpeitiko zezenplazan, eguerdiko hamabietan hasiko den jaialdian —aizkolariak, harrijasotzaileak eta abar ere egongo dira—, eta hauxe dute apustua: Diego Garciak bost kilometro egin beharko ditu (50 itzuli) Egañak hiru kilometro eta erdi egin aurretik (35 itzuli). Xebaxtian Lizaso antolatzailleak badu favorittoa: Egaña. Baina berriro ke kontuak atera dira: «Hurrengo egun hauetan, ordea, gutxiago erre beharko hukek», esan dio Egañari berari.

Egaña-eta hitz eta pitz ari diren bitartean, Diego Garciak bereari ekin dio: plazan lasterka hasteari. «Nahiko ondo zagok, gogorra». Hura lasterka ikusita, Egaña ez da pentsatzen jarri noiz hasi pausoa luzatzen, berak ere probatu egin nahi duelako terrenoa berria, eta gustura geratu da. «Baina ez zekiat 35 buelta emango ditudan, Diego. 32-33, hortxe ibiliko nauk. Ito egiten bainauk. Orain ibili dituk ba Juanito Oiarzabal-eta Everesten, ba ni ere haien bezala ibiliko nauk bukaeran, oxigenorik gabe». Baina apus- ➔

**Andoni Egaña:**

**«Ito egiten  
nauk, Diego.  
Oxigenorik gabe  
ibiliko nauk  
bukaeran»**

**Diego Garcia:**

**«Oraingoan nik  
irabaziko diat,  
Andoni. Gainera,  
gogoarekin  
nagok»**



tua galtzen badu ere, Egaña dio kontent geratuko dela. «Munduko errekorra lortuko diat: zezenplazako hiru kilometro eta erdikoa».

Diego lehen ere lasterka eginda da Azpeitiko zezenplazan, eta ez omen dio kontrarioari batere aholkurik emango. «Esaten den bezala, kontrarioari urik ere ez». Irabaztera aterako da Diego, lehenago galduta dagoelako beste apustu bat Egañarekin: orain dela bi urte, Azkoitia-Azpeitia maratoi erdian —Egaña ez zuen egin Diegok egindako denboraren bikoitza—. «Oraingoan nik irabaziko diat, hori seguru. Gainera, pare bat hilabetean korrika ezin eginda egon nauk, eta gogoz nagok», dio Diegok.

Gainera, moralarekin dago; batetik, martxoan Seulen ikaragarritzko maratoia egin zuelako —bigarren bukatu zuen—, eta, bestetik, abuztuaren 27an Japonian mararoi bat korritzeko egundoko eskaintza ekonomikoa jaso duelako. Orduan izango du Diegok bere azken maratoia. Urrian 39 urte beteko ditu, eta ba omen du erretiroa hartzeko

**geRtutik... Andoni Egaña**

**BERTSOLARI  
KORRIKALARIA**

**Xebaxtían Lizaso**

**Bertsolari korrikalaria da Andoni Egaña. Gazte denboran bi maratoi hasi eta bukatu zituen, eta bere hirugarren maratoiak —bertsotakoak, alegia— errearazi du gehien.**

**Andonik beti izan du kirolari grina bere barruan, eta bultzada txiki bat aski da zerbait proposatzean berak baiezkoa emateko.**

**Orain dela bi urteko apustua ere —Azkoitia-**

**Azpeitia maratoi erdikoa, hain zuzen— apustu honetan etsai izango duena —Diego Garcia— porrot baten ondoren triste zegoelako antolatutako apustua zen. Andonik irabazi zuen.**

**Orain Kilometroak' 2000 da aitzakia, eta ezetz esaten ez dakienari erraza da zerbait proposatzea.**

**Munduaren ikuspegi zabala dauka Andonik, eta bihotza zabalagoa.**

garaia. Egaña ere urrian beteko ditu 39 urte, eta behin esan zuen 40 urtetik aurrera ez dela bertsotan ikusten. Ez ote du erabaki hori hartuko!

Badaezpada lehenago saiatu beharko da baten bat bi hauen arteko bertso apusturen bat antolatzen. Zaila izango da, ordea. Izan ere, arazo bat omen dago, Egaña dioenez. «Diegok lehenago esan zian Seulen arazo bat izan zuela azkeneko kilometroetan berekin batera zihonarekin, ez omen zirelako elkar ulertzen. Ba Diegori eta bioi horixe gertatzen zaiguk afariren batean bertsotan hasten garenean: ez garela ulertzen. Horregatik ez diagu jokatzeko bertsotan apusturik».

Bestela mundial ulertzen dira. Baita ulertuko ere, salbuespen batekin: hilaren 25ean ordu laurden batez kontrarioak izango dira.

geRtutik... Diego Garcia

## KORRIKALARI BERTSOLARIA?

Xebaxtían Lizaso

Korrikalari bertsolaria izan nahi duena da Diego Garcia. Ordu txikietan bertsolari sentitzen da, normalean oinak baino arinago egoten baita mingaina. Lagun artean

egindako apustu batek hurbildu zuen Diego korrikalari mundura, eta geroztik hamaika kilometro egin du bakardadean. Taberna gizon izatetik, eliteko maratoilari iza-

tera iritsi den bakarretakoa da, normalean beste aldera gertatzen baita. Berak asko sofrituz poz ugari eman digula aitor genezake, berak egunero sofritzen baitu entrenatzen ari denean eta guk, berriaz, maratoiren batean larri ikusten dugunean bakarrik. Orduan ere berak gehiago, noski.

Lagunen lagun delako sartu da apustu honetan. Beste zor bat badugu Diegorekin. Eskerrik asko.



IÑAKI URANGA

**1903. urtean** eraiki zuten Azpeitiko zezen-plaza eta harrezkero makina bat apustu jokatu izan dira bertan. 1920. eta 1930. hamarkadan apustu ugari jokatu zen. Eta bertan lehiatu ziren, besteak beste, Clemente Arrue, Nicolas Arregi, Lorenzo San Julian *Azpeitiko Ijitu Txikia* herrikideak. Beste herrietako asko ere aritu ziren. Apustu haien artetik aipatzekoa izan zen *Aiako Txikia*-k eta *Aizarnako Txikia*-k jokatu zutena 1928ko otsailaren 28an. Bakoitzak 124 buelta zituen egiteko, hamalau

## Makina bat apustu plazan

kilometro. Hamalauna mila erreal jarri zituen bakoitzak. Ikusmin handia sortu zuen apustu hark, eta 2.868 lagun bildu ziren plazan. *Aiako Txikia*-k irabazi zuen. Azken urteetan ere izan da apusturik, Martin Fiz, Ezequiel Bitok, Diego Garcia bera eta Apalanza aritu izan baitira. ■



# Iosu Goenaga

soziologia ikaslea

## “Hizkuntza bat edo bestea hitz egiteak asko adierazten du”

### ► Nolatan aurkeztu zara Euskara Patronatoaren Iturri Zahar bekara?

Egunkarien bidez izan nuen Euskara Patronatuaren Iturri Zahar lehiaketaren berri. Uste nuen gainera, proiektu majo bat banuela, horretan Patxi Juaristi unibertsitateko irakasleak lagundu zidan. Eskuartean nuen proiektua lehiaketako gaiaren, Azpeitiko euskararen, inguruan zerbait egiteko aukera egokia zela ikusten nuen. Soziologia aldetik aztertzeko gai egokia zela uste nuen. Proiektua bekara aurkeztu eta zain egon naiz, esan didaten arte niri eman didala epai-mahaiak. Oso gustora nago.

### ► Azterketa soziologia arlotik egingo duzu eta aztergai gazteak izango dituzu, ezta hala?

Bai, hala da, baina nik DBHko gazteak aztertuko ditut, 18 urte bitartekoak.

### ► Zergatik aukeratu dituzu gazteen artean 18 urte bitartekoak?

Hasiera batean haurre-

Euskara Patronatuak Josu Goenaga azpeitiarraren «Azpeitiko gazteen jarrera euskararen inguruan. Ikerketa soziolinguistikoa» ikerketa proposamena aukeratu du Iturri Zahar bekara aurkeztu diren lanen artean.

Nerea Uranga

kin pentsatu nuen. Ordea, umeak gehienbat etxeko hizkuntza hitz egiten dute. Hizkuntzak berak gauza asko adierazten ditu, badu zeresanik euskaraz edo gaztelaniaz hitz egiteak bere konotazioak ditu. Gauza askogatik gertatzen da hizkuntza bat edota bestea erabiltzea.

### ► Gazteak bai, umeak ez eta helduak zergatik ez?

Gazteak ikertzeak aukera asko ematen ditu. Ikastetxeetara joan eta denak artaldean topatu ditzaket. Helduak berriz sakabanatuak daude. Eta azken finean gazteak dira etorkizuna eta hori garrantzitsua da.

### ► Ikerketa, soziolinguistikoa da.

“AZKEN FINEAN GAZTEAK DIRA ETORKIZUNA, eta hori GARRANTZITSUA da”


Nik egin ditudan ikasketetan, hizkuntza soziologikoa-eta ikasi ditut. Esaterako, ikerketa historiko bati ez nioke inola helduko, horretarako teknikak-eta ez ditudalako ezagutzen. Aldiz, hizkuntza soziologikoa, soziologi arlokoa da eta arloa gehiago ezagutzen dut. Gainera, nire ustez ikerketa hau baliogarria izan daiteke, prezedente on bat dela uste dut, gero beste herri antzeko ikerketa bat egiteko ere.

### ► Nola ekingo diozu lanari?

Proiektuaren memorian azaldu bezala, teknika estatistikoak erabiliko ditut eta ondoren datuen interpretazioa egingo dut.

### ► Zer teknika dira horiek?

Hiru teknika erabiliko ditut lanerako: bata inkestak izango dira, eskolatik eta ikasgeletatik pasako ditut inkestak eta gero emaitzak ordenagailu bidez landuko ditut, eragiketa desberdinak eginez. Adibidez, ikusi zein den



NEREA URANGA

gaztearen jatorria, ea gurasoen jatorriak baldintzatzen duen gazteak euskara edota gaztelania erabiltzeko. Baiezkoa bada zenbatean. Baita ere, sakoneko elkarrizketak egingo ditut, ikasle, guraso eta ikasleekin. Eta behaketa zuzena da erabiliko dudana hirugarren teknika, honetarako gazteen artean sartu behar dut, beraien artean, baina sartu gabe. Hiru azterketa hauek leku desberdinetan eta beraien ibiltzen diren

**“IKERKETA  
HAU BALIOGARRIA  
IZAN DAITEKE  
GERO  
BESTE  
herrietan  
EGIN  
ahal izateko”**

lekuetan egin behar ditut. Euskararen inguruan ze jarrera duten eta noiz hitz egingen duten jaso behar dut.

▶ **Lan txukun bat egingen bada, udalak argitaratzeko asmoa azaldu du. Argitaratzea gustatuko al litzaizuke?**

Argitaratzeko lan txukun bat egin beharko dut, eta horretan saiatuko naiz. Ilusioa egingo lidake argitaratua ikusteak, ni neu oso liburuzalea bainaiz.

▶ **Iosu, eta zuk zeuk nola**

**ikusten duzu euskara Azpeitian eta azpeitiarren artean?**

Azpeitia euskalduntze mailan eredu bat da 10.000 biztanle gainera herrien artean. Azpeitiarrok gehienbat euskaraz hitz egitera jotzen dugu, osasun ona ikusten diot euskarari herri mailan. Gazteak gehiago edo gutxiago, baina, gai ikusten ditut euskaraz ulertu eta hitz egiteko eta hori uste dut oso datu positiboa dela. ■

 **Harategia  
Odriozola**

Harategi  
Especializatua

 **KALITATEA**

Arana kalea, 14 - Urrut.: 943 81 10 15

 **AIZPURU  
AUTOAK**

**PEUGEOT**

Landeta Auzoa - Urrut.: 943 81 23 59  
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA

Kontua da...

## Igarri ezinezko lapur isila



**Imanol Elias**  
Historialaria

**U**rteetan zehar hartzen zuten beraien gain herritarrak Udalarekin tratua egin ondoren, olioaren hornikuntza lana, ahalegintzen zirela ondoren erosketak egin eta aurrez agindutako prezioetan saltzen.

Lan horretan egingo zuen denboraldi luzea Fernando Maiora jaunak ere 1782an, eta beste bat langintzaren ja-



## oSaSuNa

### Gozokiak mikatzik ez



**Julian Bereziartua**  
Medikua

**G**ozokiek ez dute inor mikazten...»

Esaldia da, baina baita egia ere.

Zalantzarik gabe gure osasunerako, gozokiak garrantzizkoak dira. Garunak glukosa edo azukrea bakarrik erabiltzen baitu energi iturri bezala. Elikadura gaietan, zuzenbiderako ipar-izarra da azukrea.

Odolean azukre gehiegi dagoenean berehala konturatzen dira garuneko zelulak eta asetasuna sentiarazten digute.

Interesgarria izango litza ke gure jatorduak gozoki bat janez hastea, gero jango ditugunei eusteko eta gosearen sentsazioa geldiarazteko. Baina arazoa

ez da hain sinplea. Gozoak hain sentsazio atsegina uzten du gure ahoan...! Gehiago jatera bultzatzen gaitu. Horregatik gozozale guztiak, edo gehienak, gizenak dira.


Buruhauste honen aurrean gizadiak gozotzaile sintetikoetara jo du: sakarina, ziklamatoak eta abar. Baina hemen beste arazo batekin topo egiten dugu. Giza-diaren asmakizunok ez dute odolera azukrerik eramatea eta honela asetasunik ez dugu lortzen. Labur esanda, berritasunok arazoaren alderdi batzuk bakarrik konpontzen dituzte.

Luzaro bizi nahi dutenek, behar baino azukre gehiago hartzen dute.

**GOZOZALE**  
**Gozoak uzten duen sentsazio atseginak, gozo gehiago jatera bultzatzen gaitu**

## SuKaldaritzA

### Esparrago beteak



**G**anbakin beteko ditugu esparragoak eta perretxiku saltsarekin bustiko. Lehenik betxamela

gingo dugu irina, gurina eta esnearekin, betxamelari ganba eta kipula gorrituak nahastuko dizkiogu. Espa-

## loRegintZa

**U**daberria lorak landatzeko garairik aproposena dugu.

Eguzkitarako petuniak, tageteak, alisoak, geranioak eta abar onak ditugu.

Zintzilikariak nahi baditugu berriz, geranio frantsesak eta dobleak edota surfiniak egoikiak dira..

Itzalerako onenak alegriak

### Garaiko loreak balkoietan





be egitean adieraziko zuen 110 arroa uzten zituela saldu gabe, tina batean gainera 42 arroa zirela azkenaldian erosiak. Adierazitakoa baieztatu nahirik begiratuko zuten agintariek, aurkitzen zituztela 12 libera bakarrik 42 arroa egon behar zuten tina handian. Tina bera zerbait pitzaturik zela pentsatu zen lehen batean eta ihes egin izango zuela olioak bertatik. Baina frogatu egin behar zen eta saiaturiko ziren tinaren ondo aitzurtu eta begiratzen ongi.

Lehor zen guztia eta olioak ihes eginiko aztarnarik gabe...

Lapurretaren bat? Tinak gorderik ziren tokia ere, giltzak itxirik egoten zen. Hornitzailearen aldetik arreta gehiegirik jarri ez bera zaintzeko?

Lehen baten behintzat, bera hartuko zuten erruduntzat, erabakitzen zutela agintariek, berak ordaindu beharko zuen falta zen olio. Istiluak sortuko ziren bi alderdien ar-

**LAPURRA**

**Agintariek hornitzailea zuten erruduntzat, olioak berak ordaindu behar zuela erabakiz**

tean, legegizonak parte harturik...

Hiru urte geroago ere jarraitzen zuen iskanbilak, bakoitzak bere iritzia defendatzen zituela, baina 1785-ean konturatuko ziren agintariek, tinak egoten ziren lokalaren

kontra zen baratzako atetik norbait sartzen zela sarritan eta isilean, lapurtzen zuela olio baliotsua. Nor izan zitezen jakin gabe geldituko zen lapurra bera...

**EuSKaRa**

Jose Luis Madina / Lau Bide Jatetxea

osagaiak

- Kipula ■ Zuritutako ganbak ■ Gurina
- Irina ■ Esnea ■ Esparragoak
- Perretxikoak ■ Salda ■ Gatza
- Arrautza.

rragoak erdibitu, bete, arrautzeztatu eta frijitu. Saltsa egiteko, perretxikoak eta kipula gorritu, irinarekin nahastu, salda bota eta dena ondo irabiatuko

dugu. Bukatzeko, ganbaz betetako esparragoei perretxikoekin egindako saltsa botako diegu gainetik.

Besterik gabe, on egin dagizuela!

eta begoniak dira dudarik gabe, eta zintzilik egoteko esparragera eta untza.

Garai honetan kontuan izan behar dugu, lorak ureztatzea ezinbestekoa dugula, gutxienez astean bi edo hiru aldiz ureztatu behar ditugu balikoietako lorak. Nohizbehinka ongarriak bota behar dizkiegu loreei, urari nahastuta edo

granulatuak. Bestalde, izurrite eta gaitzak kontrolatu beharra dago. Besteak beste zorria, arrak edo gornia dira arazo gehienak emango dizkigunak garai honetan.

**Kimu Bat**

Loraetxea

**Azpeitiko Azpeitian**

Aitor Arri

Arantzazu Azpillaga

Euskal Filologian lizentziatuak

Euskaraz hitzak erabiltzerakoan hainbat zalantza eta buruhauste izan ohi dugu. Euskara idatzian batik bat, askotan ez dugu asmatzen egokia zein den eta zein ez.

Burukomina sortzen digun hitz horietakoa da gure herriaren izena bera ere. Horrexegatik, inoiz ez dugu jakiten ziur Azpeitia-ko edo AZPEITIKO alde zaharrean ibili garen, Azpeitiatik edo AZPEITITIK irten garen, Azpeitiara edo AZPEITIRA etorri garen... Aldiz, guztiok dakigu MENDIKO haizeak, MENDIRA joateak eta MENDITIK etorritakoan dutxa hartzeak on egiten digutela.

Zer? Mendia zergatik aipatu dugu? Ez da izan Xoxoteko eguna pasa berria delako, ez horixe; MENDIA eta AZPEITIA hitzak berdin de-

klinatzen direlako baizik. Hau da, batek bukaerako -a galtzen duen kasu berrietan galtzen duelako besteak ere. AZPEITIKO

alde zaharrean poteatzen ibiltzen gara gu, oporretan AZPEITITIK irteten gara eta berriro ere AZPEITIRA itzultzen.

Mendi artean bizi garen ez, MENDIA eta AZPEITIA hitzak ezkon ditzagun, eta zalantza bat gutxiago izango dugu.

**IZENAK**

**Herriaren izenak hainbar burukomin sortzen ditu**

# Sanjuandegin jai oparoak

Hilaren lehen asteburuan dira jaiak

► Sanjuandegiko festak ekainaren lehenengo asteburuan izango dira ► Auzokoan laguntzaz antolatu ditu jaiak festa-batzordeak ► Aurten ere auzo-bazkaria izango da

Nerea Uranga

**G**ustu guztietarako parada izango da sanjuandegiko jaietan, aukera zabala baita egitarauan; Haur parkea, auzo-bazkaria, kartingak, txokolatada, sokamuturra, dantzariak, herri kirolak, Segabathor eta Lin Ton Taun musika taldeen kontzertua eta Kiñu, Irailerako 6 eta Ciclon Trio taldeekin dantzaldia izango dira besteak beste.

Ordea, asteburuan ekitaldi garrantzitsuenak izango badira ere, aurreko asteetan auzoko txoko eta tabernetan ez da jai girorik falta izan, kontzertu, mus txapelketa-eta izan dira jaizale guztientzat.

## Jai-batzordea lanean

Orain hiru urte Sanjuandegin jaiak antolatzeko eta lan egiteko batzordea sortu zen. «Orduan batzordeak hartu zuen jaiak antolatzeko ardura. Jaiak baino hilabete batzuk lehenago dei zabala egin



Sanjuandegiko festetan jende ugari izaten da.

genuen eta bertan lan egiteko prest agertu garenak bildu izan gara». Jaien aurretik bakarrik ez du lan egiten batzordeak, jaietan ere makina bat lan egin behar izaten dute batzordekideek: «Lan asko eta gauza asko egin behar izaten dira jaietan, goizeko zazpietan sokamuturrerako auzoko kaleak ixteko inork ez du gogorik izaten baina, itxi egin behar. Batzor-

deko kideok ondo pasatzeaz gain lan asko egiten dugu. Hala ere, jendea oso ondo portatzen da. Iazko jaien balantzea oso ona izan zen eta batzordeko giroa ere ona izan zen».

## Jaietan auzolanean

Jaiak antolatzeko orduan diruak garrantzia handia izaten du. Urteak aurrera indar handiagoa eman nahi baitiote jaiiei, auzora jende gehiago hurbilduz eta jendearen gustoko jaiak antolatuz. «Urtero udalaren dirulaguntza jasotzen dugu, gainera udalak barrakei kobratzen dien lurraren alokairuaren dirua ematen digu. Gure aldetik ere, dirua batzen ahalegintzen gara, zozketak-eta, auzoko taberna, denda eta elkarteek ere diruz laguntzen dute. Gero, jaietan dirua ateratzeko zenbait ekitaldi antolatzen ditugu, mus txapelketa, uso-tiroa eta porrak. Komertzio eta jendearen partaidetza-ri esker egiten dira jaiak».

Iaz Sanjuandegin aurrenekoz antolatu zen auzo bazkarian ia 200 pertsona izan ziren. Batzordekoak espero baino jende gehiago izan zen. Aurtengo jaietan auzo-bazkariari bultzada handiagoa eman nahi diote eta jende gehiago animatu nahi dute bazkaltzera. «Iaz 50 pertsona espero genituen eta 200 pertsona izan ziren bazkarian». ■



Foruen Ibilbidea, 3  
Tel.: 943-816107

- Zurezko altzarien polikromatua.
- Metala, tela, eskaiola eta poliuretanoan margotzea.
- ... eta beste hambat eskulan.

*Matrikula zabalik urte osoan*

**AZKOITIA**

ERLOJU  
KONPONKETAK

Arana, 5  
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

# Gau luzeeneko jaiak

Urrestillan San Juanak ekitaldi ugariz ospatuko dituzte

► Urrestillako festa komisiok buru belarri dihardu jaiak antolatzen ► San Juanetan adin guztiek izango dute jaietarako parada ► San Juan bezperan hasi eta aste buruan zehar izango dira jaiak

Aitor Alberdi

Urteko gaurik luzeena hurbiltzen ari dela eta, urrestildarrak buru belarri dihardute, beti bezala alaitasun eta xestraz, bertako festak prestatzen, San Juanak.

Urrestillako festa komisia hamabi bat gaztek osatzen dute. Egitaraua antolatuta badute ere, festa komisiokoen esanetan, ez da bitxikeri eta inprobisaketarik faltako festetan.


Urrestillako festa komisioren helburuak, festak indartzea eta urrestildar guztientzako festak antolatzea izan dira batez ere: «Herritar guztiontzat atseginak eta erakargarriak izango diren festak antolatzea da gure nahia. Zahar, heldu, gazte eta txikiak, denok batera ondo pasatzea da lehenik eta behin lortu nahi duguna. Bestalde, herri txikietako festak indartzea da gure erronka nagusia. Herri txikietako festak euskal kulturaren parte direla uste dugu, eta hauek mantendu eta suspertu



Arbolaren inguruan ekitaldi ugari izaten da festetan.

behar ditugu. Urrestildarrok ondo pasako dugula badakigu ere, gainontzekoak gurekin batera festan parte izan nahi ditugu».

San Juanetarako diru iturriak festa komisiok urtean zehar antolatutako ekintzak eta udalitik jasotako dirulaguntza dira nagusiki. «Festa hauetarako dirua lortu asmoz gabon eskean baserri-baserri ibili ohi gara eta herritarren borondateari esker diru laguntza garrantzitsua lortzen dugu. Gero Santo Tomas egunean txosna eta karroza kaleratzen ditugu. Urte osoan zehar kamisetak saltzen ditugu eta diru honekin eta udalak ematen digunarekin San Juanak prestatzeari ekiten diogu».



## «Urrestilla Herri da»

Egun nahiko ezaguna da urrestildarren pentsakeraren islada den irudi hau. Baina ez da oraingotxea, ez. 1976an Juan Bautista Berasategik margotu zuen. Zerbait berezia nahi zuten eta baita lortu ere! Txillidak ere eskatu omen zuen pegatina bat, desberdina zela-eta. ■

Euskal Herria,34  
20730 AZPEITIA  
Tel.: 943 15 16 40



Larrialdiak:  
943 81 50 72

**Ekain**  
ALBAITARI KLINIKA



**URBISTONDO  
MARGOAK**

MARGO MUNDUAN ESKEINTZA PAREGABEA

Salbe Auzunea, 35 behea  
20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

# Zorionak, 'tia Antxona'

Ekainaren 7an 100 urte beteko ditu Antonia Nazabal azpeitiarrak



Urtero joaten da tia Antxona saninazioetako zezenketetara. Argazkia iazkoa da, eta bere eskuinetara iloba Mila ageri da.

**M**ezatik bueltan, etxera afaltzera doa berarekin topo egin dugunerako. Egunero moduan, bakarrik egin du miseriakordiarako buelta. «Afaltzeko gosetu naiz ja» esan eta makalatik sartu da etxera, mahaira zuzenean. Afaldu eta fregatua egitea berari dagokio, gauero moduan —utzi nahi ez diogun arren, zeinek komentzitu...—; *Telediario* ikusi eta ohera, 22:30ak aldera.

Ekainaren 7an beteko ditu 100

- ▶ **Azpeitian bizi izan da beti Antonia Nazabal, senideekin**
- ▶ **Beste guztiaren gaineratik, telebistan zezenketak ikustea dugu gustokoen**
- ▶ **Egunero ateratzen da kalera, mezara joateko, bakar bakarrik gainera**

Nerea Epelde - Iban Arregi

urte. Eta halakoxe bizia darama *tia Antxonak*, 100 urte betetzear den batentzako oso ohikoa ez. Bera «oso gustora» bizi dela esan orduko, 100 urteen kontua aditu ere ez duela egin nahi esan digu, «bizitzeko denbora gutxiago geratzen zaidan seinale da eta».

Tia Antxonak gauza asko ditu gustoko, baina nahien-nahiena telebistan zezenketak ikustea. Horretan dagoenean, eta etxekoek ondo dakite hori, hango

**ESTUDIO D3 ENRIQUE EGUINO**  
ARANA GOIKOA, 1 BEHEA - 20730 AZPEITIA - TEL.: 943 81 08 88

Barne Diseinua

ICIAR SAN JUAN

**L.S**

Ileapainketa  
Auto - Makilajea

Loiolabide, 19 beheka AZPEITIA Tfno.: 943 81 02 17

**Afizioak baditu, bai,  
tia Antxonak. Baina  
egunean zehar lan  
pixka bat egitea ere  
gustatzen zaiola dio**

**100 urteak horrela  
harrapatzeko zer egin  
duen galdetuta, berak  
ezer berezirik ez duela  
egin esan digu**

kurruska eta oihual! «Gehiena toreroa harrapatzea gustatzen zait, baina minik eman gabe, jakina», dio neska-kozkor gaizto aurpegia jarrita. Saninazioetan ere urtero joaten da zezenketak ikustera, eta aurten ere badu joateko asmorik, «dudarik gabe gainera». Kantatzea da bere beste afizioetako bat. Bere ahots ona lagun, famili arteko bazkarietan izaten da errepertorio bat edo beste. «Gehiena, *isil-isilik dago...* gustatzen zait».

Afizioak bai, baditu afizioak Tia Antxonak. Baina egunean zehar lan pixka bat egitea ere gustatzen zaio, «bestela aspertu egiten naiz-eta». Hala, goizero-goizero bere ohea egiteaz gain, bestelako lanetan ere jarduten du arratsaldetan: «neguan erro-pa garbiak erradiadoreetan zabaltzen ditut lehertzeko, erro-pak bildu; eta uda aldera baba handiak eta ilarrak aletu...».

Lo ere zoragarri egiten du, bere etxeok diotenez. Bera tarteka kexatzen da, baina albokoek ezetz diote, lo primeran egiten duela, seko. 100 urteak horrela harrapatzeko zer egin duen galdetu diogu, ea ezer berezirik egin duen. Eta berak ezetz, berak bizi normala daramala. Hori bai, otordu bakoitzean ardo tragoxka bat beti ere, «medikuek osasunarentzako ona dela esaten dutelako».

Bejondeizula, Tia Antxona. Zorionak!

## ‘Iloveyou’ birusa eta beste

Gaur egungo teknologia berrikuntzekin nahikoa lan izaten du tia Antxonak. Baina ez zaizkio, ezta gutxiago ere, oharkabean pasatzen; *Iloveyou* birusa kasu.

Iragan asteetan txoko guztietan entzun genuen birus horren berri, kasik *Gran Hermano* bera baino gehiago. Eta tia Antxonak ere entzun zuen birusarena, nola zebilen batetik bestera, ia mundu osoan zabaltzeraino. Gehiegi ulertzen ez, baina bi gauza omen zituen argi: bata, birusa zela, alegia, kutsakorra; bestea, ordena-

gailu bidez kutsatzen zela *iloveyou*. Nahikoa beretzako. Etxeko ilobek ordenagailua hartzen zutenerako, tia Antxonaren errieta: «Ez ezazue ordenagailurik hartu, bestela birusa kutsatu eta medikuarengana joan beharko duzue-eta...».

Poltsikoko telefonoena ere ez du ondoegi ulertzen. Bera telefonista izandakoa da, eta badu nahikoa kezka: «Nola kobratuko du Telefonikak *movila*-ren faktura aparatuarekin berarekin inolako lotura fisikorik izan gabe?».



Tia Antxona, argazkiaren eskuin aldean, duela urte dezenteko argazki batean.

## Osakidetzako txartelarena

**Tarteka-tarteka** medikuarenetik bueltaren bat egin behar izaten du tia Antxonak ere. Eta han ere harrituta, hain ondo dagoelako. Duela hilabete batzuk, medikuak ikusi eta gero erizain bat papeleo kontuan hari zenean, honela esan omen zion tia Antxonari: «Aizu, Osakidetzako txartela gaizki daukazu, zure jaioteguna 1900 urtea dela jartzen du-eta». Eta tia Antxonaren erantzuna, berehalakoa: «ez, ez, ondo dago txartela, 1900 urtean jaio nintzen ni».

Erizaina seko harrituta, norma-

la denez. Baina medikua bera ere harriturik dauka. Ez da denbora asko hurrengoa gertatu zela: garrantzi handirik gabeko arazoren bat zela-eta, medikua-arengana joan ziren tia Antxona eta bere iloba Koro. Tia Antxonak, medikuari ze errezetatuko zion galdetu zionean, honen erantzuna ere berehalakoa: «Zer errezetatu? Zuk errezetatu beharko didazu zerbait, adin horretara hain ondo heltzeko...». Seko harrituta, bai, medikua bera ere. ■

zer dago gaizki, zer faltan, zer soberan?

Adi-adi egin so eskuineko argazkiari, eta bertan zer dagoen gaizki, zer faltan edota zer soberan asmatu behar duzu. Zeure ustez asmatzen baldin baduzu, adierazi akatsa boligrafoz, moztu orrialde hau eta hilaren 20rako bidali gutuntxo batean helbide honetara: Uztarría Kultur Koordinadora, posta kutxa 227, Azpeitia.


Izen-abizenak: .....  
 Helbidea: .....  
 Telefonoa: .....  
 Argazkiko akatsa: .....

Irabazleak **Lau Bide jatetxean** bi lagunentzako afaria izango du, eta **UZTARRIAREN elastiko bat** ere jasoko du.


aurreko argazkia



...eta soluzioa



irabazlea: **Joxe Luis Iztueta**



**Afaria eta elastikoa** ◆

Joxe Luis Iztueta izan da zazpigarren irabazlea. Sari gisa, bi lagunentzako afaria izan zuen **Atsedena** jatetxean (bertakoa ere ageri da argazkian), eta **UZTARRIAREN elastiko bat** ere jaso zuen.



**Manuel Salaberria**  
 BEGIKO SENDAGILEA

BEGIKO MIKROKIRURGIA:

- KATARATA. MIOPIA. HIPERMETROPIA.
- BEIRAKARA-ERRETINAKO GAISOTASUNAK
  - Erretina askatze.
  - Makulako gaisotasunak.
  - Erretinopatia diabetiko konplikatua.



**Esther Usandizaga**  
 FAMILIAKO MEDIKUNTZA  
 ETA MEDIKU OSTEOPATA

- Azterketak (Analisiak...).
- Arreta jarraia.
- Etxera ere joaten gara.

**OSTEOPATIA**

- Bizkarrezurraren errehabilitazioa ( gerrrialdekoa, bizkarraldekoa, zerbikala).
- Gihar eta artikulazioetako arazoak.

Loiola auzoa, 25-B 1.º K  
 Tfnoa: 943 15 17 52  
 20730 Azpeitia-Loiola

**izan beharreko telefonoak**

**Erakunde edo toki publikoak**

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Nekazal Ganbara	81 46 56
Zerga Bulegoa	81 13 68
Enplegu Batzordea	15 03 00
INEM	15 04 02
Eusko Jauriaritza	15 16 57
Urkome	81 65 00
Lapatx Zabortegia	81 55 05
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza	85 10 00
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	81 25 55
Ingurugiro Etxea	81 24 48

**Osasuna**

Anbulategia	81 51 00
(larrialdiak)	81 12 01
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	81 32 97
DYA	81 38 49
(Donostia)	46 46 22

**Komunikabideak**

Uztarría (berria)	15 03 58
DV	15 09 94
Herri Irratia	81 44 58
Kaito TB	81 53 35

**farmaziak gaez**

**Ekalnaren 5etik 11ra**  
Beristain . Urbitarte, 3.  
81 19 49.

**Ekalnaren 12tik 18ra**  
Azpiazu (Azkoitia).  
Kale Nagusia, 66.  
85 29 89.

**Ekalnaren 19tik 25era**  
García. Enparan, 29.  
81 12 74.

**Ekalnaren 26tik uztallaren 2ra**  
Gisasola (Azkoitia).  
Jandonianiz, 5. 85 12 35.

**Uztallaren 3tik 9ra**  
Aseginolaza. Plaza  
Goikoa, 2. 81 13 50.

**Alderdi politikoak**

EAJ - PNV	81 55 70
HB - EH	15 12 15
EA	81 00 11

**Sindikatuak**

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

**Ikastetxeak**

Betharram	81 16 68
Ikasberri	15 12 46
Iraurgi	81 02 10
Jesuitinak	81 22 49
Karmelo Etxegarai	81 26 65
Milagrosa	81 63 80
Urola DBH	15 02 28

**Garraioak**

Aldalur	85 27 18
EuskoTren	15 06 77
La Guipuzcoana	85 11 59
Pesa	21 26 99
Piper U. Elkartea	85 25 87
Taxiak	81 13 07

**Kultura - Euskara**

Euskara Patronatoa	81 19 47
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Uztarría (berria)	15 03 58
Antxieta Etxea	81 35 40

**gune publikoen ordutegia**

**Udaletxea**  
Astegunak: 9:00 - 13:30.  
Larunbatak: 9:00 - 13:00.

**Ixplaxloa**  
Egun osoz irekita.

**Igerilekua**  
Astelehenak: 14:00 - 21:00.  
Beste astegunak: 7:00 - 21:00.  
Larunbatak: 10:00 - 13:00, 16:00 - 20:00.

**Kiroldegia**  
Astelehenak: 9:00 - 13:00, 15:00 - 21:00.  
Beste astegunak: 15:00 - 21:00.  
Larunbatak: 10:00 - 13:00, 16:00 - 20:00.

**Udal Liburutegia**  
Astegunak: 10:00 - 13:00, 16:00 - 20:00.

**autobusak**

**JOATEKO**

**Azpeitia-Zestoa-Donostia**  
Astegunak: 6:50 (1), 7:50 (1), 8:10 (3), 9:00 (1), 10:00, 13:10 (1), 14:00 (1), 15:10, 16:10, 18:45 (2), 19:45 (2).  
Larunbatak eta abuztuko astegunak: 7:50, 10:00, 13:40, 15:10, 16:10, 19:15.  
Igandeak eta jaiegunak: 15:10, 19:15.  
Enpresa: La Guipuzcoana.  
Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este-tik' pasatzen da; 2: Sarrera Amaratik; 3: Eskola egunetan soilik.

**Azpeitia-Elbar-Bilbo**  
Astegunak: 6:30, 13:00, 18:30.  
Larunbatak: 9:30, 14:30, 18:30.  
Igandeak eta jaiegunak: 9:30, 19:30.  
Enpresa: Pesa.

**Azpeitia-Bilbo-Leloa**  
Astegunak: 6:35, 7:20, 13:30.  
Enpresa: Piper Unibertsitarien Elkargoa.

**Azpeitia-Azkoltia**  
Astegunak: 6:55, 7:25, 7:50, 8:25, 9:25, 9:35, 10:15, 10:25, 11:25, 11:50, 12:25, 13:25, 14:25, 14:35, 15:25, 16:25, 16:35, 17:25, 18:25, 19:15, 19:20, 19:25, 20:25, 22:25.  
Asteburuak eta jaiegunak: 7:00, 7:40, 8:40, 10:15, 10:40, 11:20, 12:45, 13:20, 14:40, 16:40, 17:05, 17:20, 18:40, 19:15, 19:35, 19:40, 21:35, 21:40.  
Enpresa: EuskoTren.

**Azpeitia-Zestoa-Zumala**  
Astegunak: 6:30, 7:10, 8:15, 9:10 (1), 10:10, 11:10, 12:10, 13:10, 14:10, 15:10, 16:10, 17:10, 18:10, 19:10, 20:10, 21:10.  
Asteburuak eta jaiegunak: 7:25, 9:25 (2), 10:25, 11:45, 12:25, 13:45, 14:25, 16:25, 17:45, 18:25, 20:25, 21:25, 22:05.  
Enpresa: EuskoTren.  
Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarnazabaldik pasatzen da.

**Azpeitia-Zestoa-Zarautz**  
Astegunak: 6:40, 8:30, 10:40, 13:25, 15:10, 18:10.  
Asteburuak eta jaiegunak: 15:40, 18:10, 20:10.  
Enpresa: EuskoTren.

**Azpeitia-Zumarraga (hospitela)**  
Astegunak: 6:55, 8:25, 10:25, 12:25, 13:25, 14:25, 16:25, 18:25, 19:25.  
Asteburuak eta jaiegunak: 7:40, 8:40, 10:40, 12:40, 14:40, 16:40, 18:40, 19:40.  
Enpresa: EuskoTren.

**Azpeitia-Errezil-Tolosa**  
Astegunak: 6:55, 13:55.  
Asteburuak eta jaiegunak: -  
Enpresa: EuskoTren.

**ITZULTZEKO**

**Donostia-Zestoa-Azpeitia**  
Astegunak: 7:50, 8:50, 11:05, 12:05, 13:05 (1), 14:05 (1), 15:05, 17:30, 18:30 (1), 19:30 (1), 20:00 (3), 20:30.  
Larunbatak eta abuztuko astegunak: 8:50, 12:15, 14:30, 16:00, 18:00, 20:00.  
Igandeak eta jaiegunak: 18:00, 20:00.  
Enpresa: La Guipuzcoana.  
Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este-tik' pasatzen da; 3: Eskola egunetan soilik.

**Bilbo-Elbar-Azpeitia**  
Astegunak: 10:30, 14:30, 21:00.  
Larunbatak: 9:30, 14:30, 18:30.  
Igandeak eta jaiegunak: 9:30, 12:30, 21:00.  
Enpresa: Pesa.

**Leloa-Bilbo-Azpeitia**  
Astegunak: 13:00, 14:00, 18:00, 19:00, 20:00.  
Enpresa: Piper Unibertsitarien Elkargoa.

**Azkoltia-Azpeitia**  
Astegunak: 6:30, 6:45, 7:00, 8:05, 8:15, 9:00, 10:00, 10:30, 11:00, 12:00, 13:00, 13:15, 13:45, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00.  
Asteburuak eta jaiegunak: 6:45, 7:15, 9:15, 10:15, 11:00, 11:35, 12:15, 13:35, 14:15, 15:30, 16:15, 17:35, 18:00, 18:15, 20:00, 20:15, 21:15, 21:55.  
Enpresa: EuskoTren.

**Zumala-Zestoa-Azpeitia**  
Astegunak: 6:00, 6:30, 7:00, 8:00, 9:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00 (1), 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 22:00.  
Asteburuak eta jaiegunak: 6:35, 7:15, 8:15, 10:15, 10:55, 12:15, 12:55 (2), 14:15, 16:15, 16:55, 18:15, 16:55, 18:15, 19:15, 21:15.  
Enpresa: EuskoTren.  
Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarnazabaldik pasatzen da.

**Zarautz-Zestoa-Azpeitia**  
Astegunak: 7:15, 9:00, 11:15, 14:00, 16:00, 18:45.  
Asteburuak eta jaiegunak: 16:30, 19:00, 21:00.  
Enpresa: EuskoTren.

**Zumarraga (hospitela)-Azpeitia**  
Astegunak: 7:35, 9:30, 11:30, 13:30, 14:30, 15:30, 17:30, 19:30, 20:30.  
Asteburuak eta jaiegunak: 8:45, 9:45, 11:45, 13:45, 15:45, 17:45, 19:45, 20:45.  
Enpresa: EuskoTren.

**Tolosa-Errezil-Azpeitia**  
Astegunak: 9:30, 18:30.  
Asteburuak eta jaiegunak: -  
Enpresa: EuskoTren.

# ekaina

## 1 (osteguna)

- **MUS TXAPELKETA.**  
Sanjuandegiko Udaberriko festetan mus txapelketa Ongi Etorri Erretegian. 21:00etan. Izen-ematea 3.500 pezeta.

## 2 (ostirala)

- **TXUPINAZOA.**  
Sanjuandegiko udaberri festetako txupinazoa. 20:00etan. Ondoren, erraldoi eta buruhandiak trikitilariak lagunduta.
- **KONTZERTUA.**  
Sanjuandegiko udaberriko jaietan Segabathor taldearen kontzertua auzoko plazan. 22:30etan.
- **DANTZALDIA.**  
Sanjuandegiko jaietan Kiñu taldearekin dantzaldia. 23:30etan.

## 3 (larunbata)

- **KALEJIRA.**  
Sanjuandegiko jaietan, kalejira erraldoi, buruhandi eta trikitilariekin. 10:30etan.
- **HAUR PARKEA.**  
Sanjuandegiko haur parkea, igerrileku atzeko aparkalekuan. Goizean 11tatik aurrera eta arratsaldean 5etatik aurrera.

- **AUZO BAZKARIA.**  
Sanjuandegiko jaietako auzo bazkaria. 14:30tan. Ondoren, txapel jaurtiketa eta jokoak izango dira.
- **KARTING.**  
Sanjuandegiko Karting saria. 16:00tan.
- **FUTBOLA.**  
*Euskal Presoak Euskal Herrira* lemapean, Anaitasuna-Lagun Onak-Zestoa hiruko futbol txapelketa jokatu da Garmendipen. 16:15etan.
- **KONTZERTUA.**  
Sanjuandegiko plazan Lin Ton Taun taldearen kontzertua. 23:00tan.
- **DANTZALDIA.**  
Sanjuandegiko jaietan Irailerako 6 taldearekin dantzaldia auzoko plazan. 00:30etan.

## 4 (igandea)

- **TXOKOLATADA.**  
Sanjuandegiko festetan Iturri Elkartek eskainita txokolatada. 6:00etan. Ondoren sokamuturra. Zezena eta gero, salda eta pintxoak Vivero elkarteak emanda.
- **MENDIA.**  
Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta egun guztiko mendi ibilaldia izango da Larrunera. Autobusaren irteera 8:00etan Plazan.
- **GOIZ ERESIA.**  
Txistularien goiz eresia. 9:00etan.
- **LUNTXA.**  
Sanjuandegiko jaietan jubila-tuentzako luntxa. 12:00etan.

- **KONTZERTUA.**  
Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du Sanjuandegiko auzoko plazan. 12:00etan.
- **DANTZA.**  
Sanjuandegiko jaietan dantzariak euskal dantzak eskainiko dituzte auzoko plazan. 13:00etan.
- **HERRI KIROLAK.**  
Sanjuandegiko herri kirolak. 17:30etan. Harrijasotzen Izeta, Aimar, Ostolaza II eta Elosu-Korta. Aizkoran Mugerza eta Elorriaga. Gurdiaekin Iñaki Flores nafarraren erakusketa.
- **KILOMETROAK.**  
Ikasberri Ikastolak eta Aita Mari Arraun elkarteak antolatuta, Zumaian KMK'00 bandera estropada. Estropadan San Pedro, Santiagotarrak, Hondarribia, Koxtape, Hernani, Donostia-Arraun eta Zumaiak parte hartuko dute. 18:00etan.
- **DANTZALDIA.**  
Sanjuandegiko auzoko jaietan dantzaldia Ciclon Trio taldearekin. 20:00etan.
- **SUZKO ZEZENA.**  
Sanjuandegiko udaberri festak amaitzeko suzko zezena. 24:00etan.

## 7 (asteazkena)

- **JUBILATUAK.**  
Aitonetatik antolatuta Getxora ibilaldia. 9:00etan aterako da autobusa plazatik. Areetan izanho da hamarretakoa, Gatikan bazkaldu eta arratsaldean Butroeko gaztelura eta Mungia bisita egingo da.

# bide

Sukaldeko altzariak  
eta  
horman sartutako  
armairuak  
neurritan.

Landeta Auzoa - AZPEITIA  
Tel. eta Faxa: 943 81 17 47



**UROLA IKASTOLA**  
AZKOITIA - AZPEITIA BHI

- DBH  
- BATXILERGOAK  
- HEZIKETA  
ZIKLOAK

## KALITATEA ZURE ZERBITZURA

Altamira Auzoa z/g  
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 85 21 74 Fax.: 943 85 28 67  
E - mail: Azkoitia@urola.hezitek.net

Loiola hiribidea, 4 (Esklabak)  
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 81 37 70 Fax.: 943 81 66 20  
E - mail: Azpeitia@urola.hezitek.net

Perdillegi, 2  
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 15 02 28 Fax.: 943 81 16 94



## 10 (larunbata)

### ■ KILOMETROAK.

Pilota partiduak KMK'00ren alde. Goñi II-Berna Olaizola II-Lasaren aurka eta Etxaniz-Otaegiren aurka. Izarraitzen..

### ■ INGURUGIROA.

Plazan egunean zehar ingurugiro karpa egongo da. 4R Fundazioak eta Arazi Ingurugiro Zerbitzuak kooperatiba Elkartearen ekintzekin.

## 11 (igandea)

### ■ GOIZ ERESIA.

Txistularien goiz eresia. 9:00etan.

### ■ MENDIA.

Lagun Onak M.B.k deituta Azkoitiko 7 Gurutze mendi ibilaldia. Mendi irteera 10 ordukoa izango da.

## 18 (igandea)

### ■ MENDIA.

Lagun Onak M.B.k antolatuta umeentzako mendi irteera Adarrara. Irteera 8:30etan, Plazan.

### ■ GOIZ ERESIA.

Txistularien goiz eresia. 9:00etan.

## 22 (osteguna)

### ■ MUSIKA.

Asteburu Musikalak egitarauari amaiera emateko Juan de Antxieta Musika Eskolaren urte

bukaerako kontzertua izango da.

## 23 (ostirala)

### ■ URRESTILLAKO FESTAK.

San Juan bezpera. 21:00etan herri afaria, ondoren Kifü taldearekin dantzaldia. 23:30tan arbola sartzea eta 24:00etan San Juan sua.

## 24 (larunbata)

### ■ URRESTILLAKO FESTAK.

San Juan eguna. 12:00etan Meza Nagusia. 13:00etan erraldoi eta buruhandiak. 17:00etan poniak. 18:00etan artzai-txakur txapelketa. 20:00etan pelotariak eta 22:00etan berbena Urrestillako taldeekin.

## 25 (igandea)

### ■ MENDIA.

Lagun Onak M.B.k antolatuta Kodes Mendizerrara egun guztirako ibilaldia. Autobusaren irteera 7:00etan izango da herriko plazan.

### ■ GOIZ ERESIA.

Txistularien goiz eresia, herriko kaleetan barrena. 9:00etan.

### ■ KILOMETROAK.

KMK'00ren alde apustuak izango dira zezenplazan, 12:00etan. Apustu nagusia: Andoni Egaña bertsolaria-Diego Garcia korrikalaria artekoa izango da.

### ■ URRESTILLAKO FESTAK.

San Juan txiki eguna osaptuko da Urrestillan. 12:00etan Meza Nagusia. 13:00etan Erraldoi eta Buruhandiak. 14:00etan Zaharren bazkaria. 16:00etan Ume Jolasak eta 22:00etan Oskorraren musika emanaldia.

## 26 (astelehena)

### ■ URRESTILLAKO FESTAK.

San Juan hirugarrena eta jaien amaiera. 12:30etan sagardo lehiaketa. 15:00etan Mus txapelketa, goitibehera lehiaketa eta zezen txikiak. 18:00etan haur-merienda. 22:00etan berbena eta 24:00etan Arbola entierroa eta berbenaren jarraipena.

## uzt-1 (larunbata)

### ■ KILOMETROAK.

KM'00-ren alde 24 ordu pilotan. Frontoi-Txikin 12:00etan hasita. Ondoren beteranoen pilota partdua. Ikasberriko pilota elkarteak antolatuta.

UZTARRIAREN oharra taldeei: bidali zeuon ekitaldion berri honako helbide batera: 227 posta kutxa (Azpeitia), edo Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre.

# ekaiNa



## AZPEITIKO IKASTOLA KARMELO ETXEGARAI

HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA

Euskal Herria, 50  
Tel.: 943 812697 - Fax.: 943 150830  
E-mail: keikastola@jet.es

20730 AZPEITIA  
(Gipuzkoa)



Lore Sortak  
Koroiak  
Lore Apaingarriak

Etxeetarako  
Zerbitzua Dugu



Tel.: 943 81 51 87  
Loiola-Bide, 25 - AZPEITIA

# Oskar Agirre

Futbolistie.  
Lagun Onak  
haundikue.

Oin dala 11  
urtetik dao.  
Badauke meri-  
tue, hauek'e  
sakrifikau  
eiten diela-  
ko. Nik bada-  
kit hori,  
kuadrillakue  
det-ta kapi-  
tana: Oskar



NEREA URANGA

## “NI GUSTOA NATXIOK, GIRUATIK-TA, BAÑO LOTURA HAUNDIYE DEK FUOLA”

▶ **Zuei eiten al dizkizute elkarrizketak-eta?**

Gutxi. Eiten diben laugarrena dek.

▶ **Bueno, ba zorionak.**

Zeba, ordie?

▶ **Hirugarren Malliei eusteatik.**

Ah! Eskerrik asko.

▶ **Asko kostaute?**

Gure helburue huan hori, salbatzie, baño ez hain gaizki ibiltzie.

▶ **Noiz debuta huan haundiyekin?**

Oin 11 urte ja, 18 urtekin, Bergaran. Ina Sagarzazu huan entrenadore. Karrilero jokau nian.

▶ **Txikiten extremue hitzean, ta zentral bukau dek. Zeatik?**

Nei beti gustau izen zitek aurrea jutie, baño oin erosuo natxiok zentral.

▶ **Hurrengo pausue zer, dana uztie?**

Ni gustoa natxiok, giruatik-ta, baño pentsatzen ai nauk segiu eo...

▶ **Duden eh?**

Jo, eske hi, batzuten, bukau entrenamendue, jun etxea, afaldu azkar ta jun ai ba lanea! Loture haundiye dek.

▶ **Baita aste bukaeratan sakrifikatze hori're, ezta?**

Lehen gogorroue huan ordie, kalea geyo erteten gihan ta badakik...

▶ **Bai, bazakiat. Ta bazakiau kontrolak'e bazeudecala.**

Ba motel! Oin, halare, ez zaudek. Nik uste diat konturau diela gu per-

*“Etxeko jokalayekin  
bakarrik ez zio  
salbaziye lortzeik,  
baño kanpokuek  
neurriyen ekarri  
ber dituk”*

tsonak geala, gaztiek, ta kuadrilliekin-ta ondo pasatzie gustatzen zaigula.

▶ **Hik gañea primetako dirue izeten huan poltsikuen...**

Ondo etortzen huan, hi!

▶ **Baño ondo iruitzen al zak Terzera batiende dirue moitzie?**

Nei bai. Halare, beste ekipo batzuten guriende baño askoz diru geyo moitzen dek.

▶ **Ta kanpoko jokalai asko ekartze hori ondo iruitzen?**

Hori're ondo, baño neurriyen ekarri ezkeo. Etxekuekin bakarrik ez zion salbaziye lortzeik.

▶ **Zein izengo hukek oin hiretzat derbiye?**

Zeatik galdetzen dek hori?

▶ **Ez, bueno, neskie zestuarra daukek ta...**

Neretzat derbiye beti azkoitiarran kontrakue izengo dek. Goguekin jokatzen nian haiende kontra. Baño, ez zakiat zeatik, baño haiek kasta haundiyo erakusten diabe derbiyetan.

▶ **Lagun Onak-eko baten lana azpimarra ezak.**

Kinttelana. Lan haundiye eiten dik. Ezinbestekue dek klubeako.

▶ **Kinttela... bai, azkoitiarra. Bueno, urte hauetan eure ekipuen ezautu deken jokalaik onena?**

Jaime Lizarralde.

▶ **Beste azkoitiar bat!**

Hi, ze nahi dek ba esatie? ■

# zure zaborrekin zer?

y con tu basura ¿qué?



**gutxitu**  
reduce  
**berrerrerabili**  
reutiliza  
**birziklatu**  
recicla



**Ekainak 10**

**Azpeitiko enparantzan  
ingurugiro karpa**

**Ekainak 17**

**Azkoitiko Maxieroskin  
ingurugiro karpa**

# sare@.informatika

Informatika, zugandik gero eta hurbilago

Ordenagailuen salmenta  
Periferikoen salmenta  
Ordenagailu portatilak

Asistentzia Teknikoa  
Anpliazio ezberdinak

kontsola ezberdinen salmenta  
Play, N64 eta Game Boy  
Joku aukera handia

Enpresentzako zerbitzu berezia

Azpeitian  
informatika  
Denda Berria

Pablo VI 19 behea  
(Patxo jatetxearen katean)

Telf: 943 157 321  
sare@euskalnet.net

Azkoitia  
Julio Urkixo 10 behea

Enpresa eta norbanakoentzako

Telefono mugikor, internet eta 1050 zerbitzuak

Banatzaile Ofiziala  
**Euskaltel**  
batzen gaituena

## KALITATEZKO PAUSOA


### PROZESUAREN KONTROLA ETA SEGURTASUNA

**D**ISEINUA

**A**RGAZKIAK

**F**OTOLITORIK GABE

G R A F I C A S



## INPRESIO BIKAINA

BºLandeta-Arretxe, 11-Tel.: 943 15 75 02 · Fax: 943 81 37 98 · 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa) · E-mail: zubi@abc.ibernet.com